



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

Zientzia Politikoak eta Kudeaketa Publikoa
2018-2019 IKASTURTEA

Espainia eta Portugaleko Erregimen Aldaketen Sakonera Demokratikoen arteko Konparaketa

EGILEA: Jon Txomin Mendia Aramendi

ZUZENDARIA: Asier Blas Mendoza

2019ko Maiatzaren 28a

0. AURKIBIDEA

0.	AURKIBIDEA.....	1
1.	SARRERA.....	2
2.	MARKO TEORIKOA.....	3
	2.1 Demokratizazioa eta trantsizio demokratizataileak.....	3
	2.2 Gelmanen Eliteen gerturapena.....	7
	2.3 Metodologia.....	16
	2.4 Hipotesiak.....	17
3	ATAL ENPIRIKOA.....	18
	3.1 Portugal.....	18
	3.2 Espainia.....	26
4	KONPARAKETA.....	33
5	ONDORIOAK.....	40
6	BIBLIOGRAFIA.....	42

1. SARRERA

Espainiako trantsizioa aurrera eta atzera, urteak daramatzagu bai eskolan, bai instituto zein unibertsitatean gaiari buruz eztabaidatzen. Oraindik ere gaurkotasuna duen gaia da, 78ko erregimenari buruzko debata eguneroko eztabaida politikoan mantentzen da. Kuriositate berezia sortarazten du erregimenaren piezak deitzen direnak desmontatu eta egungo puzzlea nola osatu zen ulertzeak. Gradu Amaierako Lanean politika konparatuaren gaia aukeratu eta egokitu zitzaidan, aurreko urtean erasmus Coimbran, Portugalen egin eta hainbeste gustatzen zaidan herrialdeari buruz gehiago jakiteak motibatuta, tutoreari gaia proposatu nion.

Hasieratik helburua bi trantsizio ereduak konparatzea izan da; gaiari buruz irakurri eta ikertzen joan naizen elean ikerketaren helburu nagusia moldatu dut. Hasieran bi trantsizioen elementu bereizgarriak aurkitzea izan zen helburua. Lanari buelta bat gehiago eman ostean eta kontsolidazio terminotan bi trantsizioek oso antzeko emaitzak lortu zituztelakoan iker-galdera nagusia moldatu dut. Portugal eta Espainian antzeko diktadurak gainditu ziren eta egun bi herrialdeak esparru politiko, militar eta ekonomikoan toki berean daude oro har. Trantsizio ereduak abiapuntu oso ezberdinak izan zituzten eta bi prozesuen bilakaera oso ezberdina izan zen. Bi herrialdeetan, aldaketa erradikalak alde batera utzi eta Europako gainontzeko herrialdeekin konparatuta demokrazia homologagarriak lortu ziren.

Konstituzioaren dimentsio sinboliko-sustantiboan, demokratizazio sakontasun gradu desberdinak azaltzeko garaian zein faktorek izan zuten garrantzi gehien? Galderari erantzuteko, trantsizioa bezalako kontzeptuak duen zailtasun intrinsekoa kontuan izan behar dugu. Fenomenoaren konplexutasunak eta aldaketa politikoen izaerak berak, teoria orokor bat artikulatu nai izan dutenen ahalegina asko zaildu dute. Arrazoi honegatik, gizarte zientzien teorikoek demokratizazioari buruzko teoria erredukzionistatik ezin izan dute lortu. Teoria erredukzionisten ezintasunaren aurrean, izaera orokorrago, elastikoago eta beraz anbiguoagoa izan duten ikerketak aurkitu izan ditugu demokratizazioaren azaltzaile bezala, legitimitate edo konsensuari erreferentzia egin izan dioten teoriak.

Horregatik, ikerketa konparatuak eskeintzen dizkigun indargune eta erreztasunak aprobetxatzea ezinbestekoa izango da. Konparazioetarako barne hartzen diren kasuak ez dira modu holistikoan ikertzen, konparaziorako aipagarriak izan daitezkeen aspektuetan zentratzen dira soilik. Aurretik landutako ikuspegi teorikoren batetik ondorioztatutako eta zentral edo adierazgarrienak diruditen aldagaien analisi transbertsalean zentratzeko aukera ematen digute. Konparaziorako aldagaiak lortzeko ikuspegi teoriko ezberdinak bilatuko ditugu, selektiboagoak izan gaitezkeelako bildu eta aurkeztuko dugun informazioarekin edota kasu bakoitza aztertzeko unean.

Ikerketa honetan kasuak izango dute errelebantzia, Portugal eta Espainiako trantsizioek alegia. Bi kasuak teoria batzuen arabera azalduko ditugu eta ez alderantziz, ez ditugu kasuak erabiliko teorizatzen. Trantsizio demokratikoei buruz arituko gara, lehenik eta behin, trantsizio demokratikoei buruzko eztabaida eta ikuspuntu teoriko ezberdinak jasoko ditut. Ondoren, teoria hauen arabera eta bakoitzak proposatutako aldagaiak kontuan izanik atal deskriptibo batetan bi herrialdeetako trantsizioak aurkeztuko ditut azkenik bien ezaugarri adierazgarrienak konparatu eta ondorioak aurkeztu aurretik.

2. MARKO TEORIKOA

2.1 Demokratizazioa eta trantsizio demokratizatzaileak

Demokratizazioa ez da termino estatikoa, autore askoren ustez ezin dezakegu ezta demokraziaren kontsolidazioaz eztabaidatu demokratizazioa bera prozesu ireki bat delako (Tilly 1978, Monedero 2002). Gure lana aurrera eramateko baieztatu dezakeguna da termino instituzionaletan trantsizio demokratizatzaile bat egon zela 70. hamarkadan iberiar penintsulako bi herrialdeetan. Politika konparatuaren eremuan, trantsizio demokratizatzaileak ikertu dituzten lan gehienak Robert Dahl-ek poliarkairi emandako definizioaz baliatu dira¹. Guk trantsizio demokratizatzailea aztertzeko izendatzaile komun minimo modura hartuko dugu bi herrialdeen Konstituzioa eta honekin batera erakundetze demokratikoa. Trantsizio demokratizatzaileak azaltzeko garaian, autore ezberdinen teoriak aurki ditzakegu, hurrengo atal honen hasieran hauek azaltzeari ekingo diot.

Hazkundearen paradigma estrukturalistaren arabera, demokrazia modernizazio ekonomiko eta gizartearen balio kulturalen modernizazioaren emaitza da. Teoria honek azalpen makrosozialak bilatzen ditu erregimen demokratikoen sorrerak azaltzeko. S.Lipset da korrante honen erreferente nagusia². Bere obran aldagai kuantitatibo ezberdinak proposatzen ditu erregimen demokratikoekin positiboki konektatuak daudenak, lau aldagai nagusiak: herrialdearen aberastasuna, industrializazioa, urbanizazio garapena eta hezkuntza maila dira. Modu honetan, erregimen demokratikoen sorrera aldagai hauen arabera posible izango den edo ez azaltzen du. Aipatutako lau aldagaiak klase ertain-altuaren sorrerarekin lotuta daude eta honekin batera kultura politiko moderatuaren hedapenarekin. Gainera, dinamizazio ekonomikoa eta merkatuen sendotzearen beharra azpimarratzen du metodo birbanatzaile eta gizartearen egituratzaile bezala; hazkunde kapitalistarekin lotua doana.

Demokraziaren sorrera aurrebaldintzekin azaltzeko ikuspegi honen beste aldaera bat G.Almond eta S.Verba³ aurkeztu zuten. Oinarrizko prosezu sozializatzaileak diren familia eta eskola eta maila politikoaren artean derrigorrezko bitartekaritza kulturala proposatu zuten. Bitartekaritza horrek kultura politiko jakin bat osatzen laguntzen du, bere aldaera zibiko edo parte hartzailean demokrazia eusteko joera duena (Kultura politiko anglosaxoia eredu bezala aurkezten digute). Lipsetekin bat eginda, teoria honek **hezkuntza gizartearen kualifikatzaile** bezala ulertzen du. Aurrebaldintza kultural hauen existentziak demokratizazioaren perspektiba azaltzea gero eta gehiago zaildu zuen. Erregimen autoritario bat modernizazio ekonomiko eta soziala aurrera eramateko gai izan liteke demokratizatorantz aurreratzen ari delaren aitzakiarekin baina hori ez da nahikoa, horrekin batera, gizartean autoritarismoarekin kontraesankorrak diren balioen hedapena beharrezkoa delako. Balio jakin batzuek harreman mota ezberdinak konfiguratu ditzakete eta hauek modu ezberdinean instituzionalizatu daitezke.

¹ Garcia, Jurado Roberto (2003). *La teoría democrática de Huntington*. Universidad Autonoma Metropolitana: Política y Cultura. 10. orrialdea

² Lipset, Seymour (1959). *Some social requisites of democracy: economic development and political Legitimacy*. California: The American Political Science Review.

³ Gabriel, Almond eta Sidnei, Verba (1963). *The Civic Culture*. New Jersey: Princeton University Press.

Estrukturalismoak determinazio hizkuntza bat erabiliaz hitz egiten du trantsizio demokratikoei buruz; objektibo bezala izendatzen dituen baldintza ekonomiko eta sozialen arabera demokratizazioa azalduz. Azken finean, Lipseten eskema eta Almond eta Verbarena behin eta berriz elkar elikatzen den planteamenduaren gurpil bera osatzen dute. Kultura politikoa egitura ekonomikoaren arabera aldatuko delako eta egitura ekonomiko jakin bat kultura politiko jakin bat sustatzeko gai delako; batean aldaketa suertatuz gero bestean eragin zuzena izango duelako. Nahiz eta orientazio normatiboan guztiz ezberdinak izan, konexio analitiko bat aurki dezakegu enfoke honen determinismo estruktural eta elaborazio marxisten artean (Barrington Moore, Scockpol). Bide honetatik Soziologia historikoa garatu egiten da, (Colomer, 1994:245) garapen ekonomiko eta kultura politiko mailak klase egitura baten oinarri bezala ulertzen dira eta erregimen ezberdinak klase hoiaren arteko gataska eta botere harremanen arabera azalduko dituzte.

Historikoki, zientzia politiko modernoaren hastapenean, Bigarren Mundu Gerra ondoren, demokrazien sorrerak azaltzeko argudio nagusiak modernizazioaren paradigma honen baitan kokatzen dira. 70. hamarkadan jada, Latinoamerikako herrialde aurreratu eta modernizatuenetan (Brasil, Txilen) diktadura militarren ezarpenak, enfoke estrukturalak planteatutako aldagai ekonomiko-sozial eta aldagai politikoen arteko harreman kausala zalantzan jartzea eragin zuen (Colomer, 1994:246) 70. hamarkadatik aurrera, Europako hegoaldeko diktadurak desagertzean; Portugalekoa lehenengo eta Greziakoa eta Espainiako ondoren, prozesu demokratizatzaile bat hasiko da hurrengo hamarkadetan luzatuko dena. Momentu horretatik aurrera, kontinente guztiek demokratizaziorantz joko dute (demokrazia, tradizio schumpeteriarretik ulertuta eta aspektu prozedimentaletara mugatua). Herrialde txiro edota garapen bideko herrialdeetako adibideek egiaztatu zuten aurrebaldintzetatik haratago posible zela erregimen demokratikoak ezartzea.

Gauzak horrela, XX. mendeko azken laurden bukaeran, paradigma estrukturalistak kolpea jasotzen du. Estrukturalismoak planteatutako ustezko baldintzak argi eta garbi egiaztatzen da praktikan ez direla betetzen. Momentu horretan, demokratizazio fenomeno berria azaltzeko gaitasuna galtzen du guztiz. S. Huntingtonek, 1974ko Aprilaren 25eko Krabelinen Iraultzaren ondorengo garai honi 3. demokratizazio olatua deituko dio (Huntington 1991).

Huntingtonek bere 1968ko obran, paradigma berarekin jarraituz demokratizazio prozesu berriarekin erlazionatuta egon zitezkeen 17 aldagai identifikatu zituen. Azken finean eta nahi gabe agian, autorea azalpen estrukturalistaz aldendu egiten da. Demokratizazioa hainbeste aldagairen arabera azaltzen bada, horrek esan nahi du aldagai batek ere ez duela azaltzeko benetako gaitasunik, prozesu bakoitzaren deskribapen soila lortzen delako azkenean. Huntingtonek aitortu egiten du demokratizazioa kausa askoren konbinazioaren emaitza dela eta kausa hauek herrialdearen arabera ezberdin konbinatu eta eraldatzen direla (Huntington, 1968: 46). Ez du aurrebaldintzei buruz hitz egiten eta azkenean, gertaera singularren pisua nabarmentzen du demokratizazioaren kausak desberdinak direla baieztatuz garaiaren arabera eta tokiaren arabera (Huntington, 1968: 46,47). Aipatzekoa da ere, nazioarteko momentua azpimarratzen duela aldagaien artean, beranduago jorratuko dugu atal hau.

Gertaera singularren pisuari helduz, momentu horretatik aurrera **aldagai politikoei gero eta autonomia gradu altuagoa** eskeintzen hasten zaie pixkanaka. Oraindik ere, oinarrizko eta kausal modura ulertzen diren faktore estrukturaletara jotzen duten azalpenak gailendu egiten dira. 1970. urtean **D. Rustow**⁴ izango da estrukturalismoa guztiz baztertuko duena. Bai Lipset eta bai Almond eta Verbak planteatutako teorien aurka joz azalduko du ez dela aurretiko baldintza estrukturalik existitzen demokrazien sorrera azalduko duenik. Nazio batasuna demokraziaren aurretiko funtsezko baldintza bakarra da, ez garapen ekonomikoa ezta desberdintzapen soziala. Faktore sozioekonomiko hauek batasun nazionala sendotzeko oinarri alternatibo bezala ulertu daitezke (Rustow, 1970: 352). Autore hauen planteamendua demokraziaren aurrebaldintzak baino, erregimen demokratikoen emaitza dira, proposatutako korrelazio-kausa zalantzan jartzen du.

Ikuspegi aldaketa hau garrantzi handikoa izango da trantsizioei buruzko ondorengo ikerketen pautak metodologikoak ezarriko dituelako **bi hipotesi metodologikoren gailentzea eraginez**⁵: Lehenengoa, erregimen aldaketekin zerikusia duten gaietan, erlazio kausalak probabilistikoak direla soilik eta prozesuen emaitzak zalantzak direla. Bigarrena, outcome-a, bitarteko erabaki ezberdinen azkenengo emaitza, lehentasun ezberdinak dituzten eliteen erabaki estrategikoen arabera determinatuta dagoela.

Demokratizazioari buruzko ikerketak gero eta ugariagoak izaten hasten dira eta gero eta interes gehiago izaten hasten dute. Rustowren obrak hurrengo autoreen lanen oinarri kontzeptualak finkatu zituen. Trantsizioak kontsentsu terminotan eta eliteen arteko paktuen bitartez azaltzen hasi ziren. Eliteetan zentratutako ikuspegi honek, aurreko azalpen estrukturalak ahaztu eta era berean aldagai sozialak alde batera uzten ditu. Aldagai ekonomiko eta sozial (murriztuagoetatik) bariabile politikoetara igarotzen gara marko teoriko berri honetan. Aurreko ikerketen muin determinista gainditzean, erregimen aldaketei buruzko ikerketetan paradigma aldaketa bat gertatzen da. **Eliteen portaerak agenda ezberdinetan lehentasuna irabazten du** aldagai azaltzaile nagusia bihurtzen den arte. Honek eragiten du elite politikoei maniobra kapazitate izugarria ematea, beraien ekintzak aldaketa politikoaren benetako motorra bihurtzen direlarik.⁶ Faktore estrukturalak jada ez dira beharrezkotzat jotzen eta enfoke metodologiko berri batera igarotzen gara faktore subjektiboak azpimarratzera orientatua.

Aktoreen arteko elkarrekintza ikerketaren objektu garrantzitsuena bilakatzen da, O'Donnell, Philippe C. Schmitter eta Laurence Whitehead-en obra (1992) enfoke metodologiko honen adierazle nagusia eta landuena da. Aldagai estrukturalak ahaztu gabe, demokratizazioa aldeko baldintza estruktural eta lidergotza prozesu estrategikoen arabera azaltzen dute. Santos Juliak, demokratizazioak azaltzeko bi ikuspegi nagusiak modu errazean deskribatzen ditu. Lehenengoa kausa bilatzeaz arduratzen da, bigarrena aldiz prozesua berreraikitzeaz eta martxan

⁴ Dankwart Rustow politologo alemaniarra transitologiaren aita kontsideratzen da; erregimen autoritariotik erregimen demokratikorako ikerketen oinarri kontzeptualak finkatu zituen.

⁵ Agüero Piwonka, Felipe eta Torcal Lorient, Mariano (1993). *Elites, factores estructurales y democratización (una discusión de aportes recientes en la literatura)*. España: Revista de Estudios Políticos. 332. orrialdea

⁶ Gomez Fernandez; Ana Belen (2011). *La llegada de la democracia al mediterraneo: las transiciones de Portugal, Grecia y España*. Universidad de Jaén: Historia Actual Online. 7.orrialdea

jarritako estrategiak aztertzeaz⁷. Ikerketa berriek izaera deskriptibo eta enpirikoagoa dute, lehenengok zergatik galderari erantzuten dioten bitartean ikerketa berriek nola galderari erantzuten diote.

Demokrazia beraren definizioa eta baita trantsizio edo kontsolidazio prozesuen definizioak esfera politikoaren esparruan egin ziren, erregimen politikoaren esferaren baitan. Esfera honetatik kanpo beste gai batzuen barneratzea ukatu zen. Ekonomiari dagokionez, lana eta kapitalaren arteko harremana demokratizatzeaz erabat ahaztuta, esfera hau politikatik aldendu egiten da. Demokrazia gobernu mota batera mugatzean, terminoa orden sozial edo ekonomikora zabaltzeko aukera ukatu egiten da sistematikoki gai hauek alde batera utziz. Erregimen autoritarioak arazo ekonomiko eta sozialen errudunak ziren, erregimenak gainditzean desberdintasunak ere gaindituko ziren eta bi esfera nagusi hauek automatikoki demokratizatuko zirela kontsideratu zen. Demokraziaren definizioan elementu hauek kontuan hartzen ez diren heinean, trantsizio eta kontsolidazio terminoetan ere ez.

Gure aldagai dependientea demokratizazio gradua da, demokratizazio graduez ari garenean aurreko azken atal honi erreferentzia egin diezaiokegu. Demokratizazio gradu apalagoak esfera ekonomikoaren demokratizazioa ahaztu egiten du heritarren eskubideak ez dituelako esparru honetara zabaltzen. Demokrazia liberal sinplea izendatu genezake aspektu prozedimental formaletan oinarritzen dena. Demokratizazio maila sakonagoak eskubide politiko formalez aparte, esfera ekonomikoa barne hartzen du eskubideen dimentsio sozialean. Dimentsio sozial horren arabera demokrazia liberal sinplea, aurreratua edo sakonagoaz hitz egingo dugu errelatoan. Bigarren mailako iturrietara, Konstituzioetara joko dugu azken produktuen emaitza sinboliko sustantiboaren ezberdintasunak konparatzeko.

Parentesi hau itxita, faktore politiko-subjektiboetan soilik zentratutako ikuspegiak kritikak jasoko ditu ere bai. Erregimen politikoen aldaketak, eliteen jokabidera soilik mugatzea marko historiko kultural zabalago bat kontuan hartu gabe aktore politikoen gehiegizko boluntarismo batean erortzeko arriskua du⁸. **Demokrazia, elite eta gizarte mugimenduen arteko interakzio bezala ulertu behar dugu**, ezin ditzakegu prozesu demokratizatzaileak agintean daudenen proposamenetan zentratuz aztertu soilik, analisi markoa ez da soilik boterean daudenen espaziora mugatu behar. Gizarte mugimenduak garrantzitsuak dira prozesu demokratizatzaileak ulertzeko, euren papera erabakigarria delako neurri hauek aurrera eramaterako orduan eta baita hauek geldiarazterakoan⁹.

Gizarte zibilaren interpretazioa guztiz alde batera eta ahaztuta 80. Hamarkadatik aurrera aldarrikatzen hasten da (Tilly 1978) gizarte mugimenduak botere harremanen konfigurazio ezberdinak eta erregimen ezberdinen erakundetze bera ulertzeko ezinbestekoak direla. Lan berri hauetan aukera politikorako egituraren (APE) eskema erabili dute eliteen arteko politika instituzionalizatua eta gizarte mugimenduen arteko erlazioa aztertzeko. APE-n botere egitura

⁷ Juliá, Santos (1996). *Condiciones Sociales de la Transición a la Democracia en España*. Gasteiz: EHU-ko Argitalpen zerbitzua. 49. orrialdea

⁸ Karl, Terry (1991). *Dilemmas of democratization in Latin America*. New York: Comparative politics. 6. Orrialdea

⁹ Markoff, John. (1996) "Olas de democracia". Madril: Tecnos. 46.orrialdea

formal instituzionalizatua ez ezik, botere erlazioen egitura informala aztertzea garrantzitsua izango da transtizioa bezalako fenomenoan erakundetzea oraindik ez dagoelako bat ere garbi.

Garrantzitsua da testuinguru hau aurkeztea, elite, gizartearen mobilizazio eta arrazoi estrukturaleri buruzko eztabaida da jorratuko ditugun teoria ezberdinen atzetik dagoen ikuspegiaren muina. Teoria ezberdinen analisirako baliagarria da hasierako eskema argi izatea autore ezberdinen planteamenduan kokatzeko.

1º Taula: Teoria Demokratizatzailei buruzko laburpena

	Analisi Markoa	Helburua	Urteak	Autoreak
Paradigama estrukturalista	Aldagai sozioekonomiko objektiboak. Indikadoreak.	Aurrebaldintzez baliatuta kausa bilatu.	2.M.G.-tik 70. Hamarkadara arte hegemoniko.	<u>Modernizazioaren teoriak:</u> Lipset, Almond eta Verba. <u>Soziologia historikoa:</u> Barrington Moore.
Eliteen Teoria	Boterea, aldagai politiko subjektiboak: Negoziaketa estrategikoak.	Prozesua deskribatu eta martxan jarritako estrategiak azaldu.	70. hamarkadan hasi eta hegemoniko bihurtu.	Rustow, Schmitter, Przeworski.
Gizarte Mugimenduen gerturapena	Aukera Politikorako Egituraren konfigurazioa.	Gizarte Zibilaren garrantzia aldarrikatu.	80. hamarkadan, 90. Hamarkadan indarra hartu	Tilly, Tarrow, McAdam, Putnam.

Iturria: Nik neuk egina

2.2 Gelmanen Eliteen gerturapena

Marko teorikoa osatzerakoan Vladimir Gel'manen teorian zentratuko naiz, Gel'manek eliteen portaerari buruzko pautak jarraitzen ditu. Bere planteamendua erregimen postsobietarren trantsizio dibertsitatea ulertzeko teoria den eanean, kontuan izan behar dugu ez dela trantsizio eredu ezberdinak konparatzeko teoria. Erabilgarritasun hori eman diezaiokegu ereduaren mugak ezagututa, noski. Bere eredura moldatu daitezkeen ekarpenak jasoko ditut konparaketarako aldagai gehiago izanda, marko teoriko osatuago bat lortzeko helburuarekin. Eliteen teoriak izaera deskriptiboagoa dute, lanaren atal enpirikoan bi trantsizioak aztertu eta konparatzerakoan baliagarriak izango zaizkigu jarraian aurkeztuko dugun gerturapena.

Gel'manen planteamendua aurkeztu aurretik, eliteen teoriari buruzko azalpen eta definizio batzuk jasotzeko Higley eta Gunther (1999) -en lanari eutsiko diogu: **Elitea(k)**, erakunde boteretsuetan, bere kokapen estrategikoarengatik emaitza politiko nazionaletan erregulartasunez eta modu substantzialean eragin dezakeen pertsona edo pertsona multzoa


bezala definitzen dituzte. Gizarteko errekurtsoen jabeago nagusitasuna duten gobernuako erakunde, mugimendu politiko, ekonomiko, militar, profesional, kultural ezberdinen erabaki hartzean arduradun nagusiak dira. Honek esan nahi du, elite segmentuak orden sozial, ekonomiko eta politikoari dagokionez jarrera oso ezberdina duten pertsoez osatuta daudela. (Higley eta Gunther, 1999: 8,9)

Eliteak emaitza politikoetan erregulartasunez eragin dezakete, euren ikuspuntu pertsonala edota euren balizko ekintzak beste eragin handiko pertsonen portaeran aldagai garrantzitsutzat hartzen dira politikak aztertzerakoan, baita gure kasuan, erregimen aldaketak edo jarraikortasunerako aukerak ebaluatzerakoan. Honek ez du esan nahi pertsona bakarrak erregimen aldaketa etapa horretako aspektu guztietan eragiteko ahalmena duenik. Kapaz dira euren interes edo kokalekuari eragiten dieten garrantzizko aspektuetan eragiteko¹⁰. Trantsizio demokratikoetan gailentzen diren eliteak erregimen autoritario barnean zein erregimen hauen aurkako oposizioan aurki ditzakegu. Baldintza bakarra da elite hauek autoritate aitortua izan behar dutela gizarteko sektore antolatu batekiko. Lan erakunde edo alderdi politiko klandestinoetako liderrak, erregimen autoritarioaren ordezkari diren eliteak bezain kapaz dira trantsizio demokratikoetan paper erabakigarriak izateko. (Higley eta Gunther, 1999: 9)

Erregimen politikoa joko politiko berezi bat da, bi oinarrizko elementuz osatua: batetik aktore edo jokalaria multzo bat, errekurtsu jakin batzuen jabe dena eta euren helburuak lortzeko estrategia propioak jarraitzen dituenena. Bigarrenik, erakunde multzo bat, aktore politikoen ekintzei "joko arauak" inposatzen dizkiena. (Gel'man, 2008:158). Erregimen politiko barneko aktoreak, gizarteko elite segmentu edo talde antolatuak dira zeinak erabaki politiko garrantzitsuetan eragiteko aukera duten (Higley eta Burton 2006). Marko teoriko hau osatzerakoan, onartzen da erregimen demokratikorako aldaketa garaian aktoreak eskuragarri dauden errekurtsoen kontrol gehiena lortzeko motibazioarekin jarduten dutela. Aktoreek demokrazia nahiago badute ez du zergatik konpromezu ideologikoengatik izan behar, demokrazia edozein erregimen motak baino errekurtsoen gaineko kontrola areagotzeko ahalmena duelako baizik. Modu honetan azaldu daiteke trantsizio prozesu guztiek demokrazian bukatu ez izana.

¹⁰ Merritt, Richard (1970). Systematic approaches to Comparative Politics. Chicago: RandMcNally. 105.orrialdea

1. Mapa kontzeptuala: Gelmanek planteatutako Erregimen Aldaketa Prozesua



Iturria: Gelman, 2008: 161

Gelmanek aurkezten digun eskemaren arabera, aurreko erregimenetik jasotako **lege ondareak (lehenengo aldagaiak)** erregimen aldaketan hasierako aktore multzoa eta aktore bakoitzaren errekurtsoen banaketa definitzen ditu. Modu honetan, aktore politikoei mobilizatorako eskuragarri dauden errekurtsoak eskaintzen dizkie eta aktoreen ekintzei muga estrukturalak ezarri diezazkioke. Legacy-a abiapuntua da, bide askotara eraman gaitzakeena. Hasierako aukera politikorako egituraren parte da, murriztaile estruktural bezala ulertu daiteke. Erregimen aldaketa prozesuaren etapa ezberdinetan aldaketa ezberdinen menpe dago.

Aurreko erregimenaren lege ondarea erregimen adaketetan abiapuntu nagusia da baina ez da faktore bakarra zeinak erregimen aldaketan eragiten duen. Erregimen aldaketa prozesuetan sortzen diren gatazken emaitza baldintzatuta dago (ez determinatuta) elkar harremanduta dauden faktore exogeno multzo batengatik, (aukera politikorako egitura orokorrean eta iraganetik jasotako legacy-a partikulariki) eta era berean faktore endogenoengatik: eliteen arteko egitura, aktoreen arteko errekurtsoen banaketa, instituzioen eragina eta koertzio eta kooperazioaren arteko estrategien hautaketaren kostu erlatiboa. (Gelman, 2008: 161)

Lehendabizi, kontuan izan behar dugu, erregimen politikoak jarduten duen ingurune dinamikaren arabera faktore exogeno multzoa denborarekin aldatu daitekeela. Aldaketa hauek, aktore politikoei bere gain dituzten errekurtsoen balio erlatiboa areagotu edo txikiagotu dezakete. Gelmanen proposamenaren arabera, aukera politikorako egiturak jokatzeko duen paperaz aparte, erregimen aldaketaren barne dinamika faktore endogenoen menpe dago batez ere (jarraikortasuna eta aktore eta erakunde aldaketa adb.). Modu honetan justifikatzen du eliteen egitura, elite fakzioen konstelazio anitz modura ulertuta haien arteko harremanak kontuan izanik, analisi elementu klabea dela.

Gelman eliteen portaera aztertzeraz sartzeko da eta aukera arrazional edota jokoan teoriak darabiltza momentu askotan proposamen ezberdinak sostengatzeko. Josep M. Colomerrek¹¹ demokraziaranzko trantsizioen azalpenek dituzten muga teorikoez kontziente,

¹¹ Colomer, Josep (1994). *Teorias de la Transición*. España: Revista de Estudios Políticos.

kasu askotan, aukera ezberdinen hautu-estrategiak aztertzean zentratzen den tresna teoriko hau oso aproposa suertatzen dela dio aktoreek etorkizunari dagokionez duten ziurgabetasunagatik ezaugarritzen diren prozesuak aztertzeko. Une hoietan suertatzen diren elkarrekintza erabakigarriak jokoan teoriak eskaintzen dituen tresna analitikoari esker modelatu daitezke.

Gelmanek aztertu nai du ea zergatik elite fakzioek bide ezberdinak jarraitzen dituzten erregimen aldaketa garaian eta horretarako aktoreen estrategien analisian barneratzen da: eskuragarri dauden errekurtsoen banaketak eta hauen balio erlatibo zein kantitateak eliteek hartu ditzaketen estrategietan eragin dezakete, estrategia kolaboratzaile eta koertzitiboetan banatu daitezke estrategia hauek. Aktoreen strategiaren aukeraketa aktore bakoitzak bere eskura dituen errekurtsoen kantitate erlatiboa, berauen balioa eta hauek mobilizatzeko kapazitatearen arabera egingo du. Edozein strategiaren erabilerak aktore politikoengan kostu bat suposatzen du eta euren aukeraketarengatik ordaintzera behartuta daude. Aktoreek, strategiaren kalkulua ex ante pertzepzioen arabera egiten dute. **Edozein strategiaren kostu erlatiboa errekurtsoen banaketaren arabera** da. Adibidez, aktore dominatzaileak errekurtsoen gaineko erabateko kontrola badu, koertzioaren kostu erlatiboa kooperazioarena baino merkeagoa izango da beretzat.

Aktore arrazionalak, hierarkikoki egituraturako **bi baldintzen arabera** demokraziaren alde edo aurka egingo du: batetik, berak eta gainerako aurkariak eskura dituzten errekurtsoen banaketa erlatiboa eta bestetik, estrategien kostu erlatiboa. Demokraziaren aldeko aukeraketak suposatzen du bi baldintza gertatzen direla: Alde batetik, koertzioaren kostua kooperazioarena baino altuagoa izan behar dela eta bestetik, aktoreek bere menpe dituzten errekurtsoen kantitate eta rangoak antzekoa izan behar duela aukeraketa hartzen den momentuan. Noski, bere teoria ez da lege ondareak ezarri duen errekurtsoen banaketa eta horren arabera estrategia kostura mugatzen. Hoietaz aparte, beste faktore eta aldagai batzuk eragiten dute aktoreen estrategia ezberdinen aukeraketan:

a) Lidergotza:

Trantsizioei buruzko ikerketan, lidergotzaren azterketa esanguratsua dela frogatu da¹²; eskeman aldagai berri bat txertatuz, lidergotzaren konparaketa errekurtsoen jabetzaren konparaketan oinarritu dezakegu. Trantsizio prozesuan lidergotza, proiektua aurrera eramateko ekimena izan zuten aktoreek errekurtsoen gaineko kontrol gehiena izan zuten. Horregatik eta lege ondarea errekurtsoen hasierako banaketan eragin gehien duen aldagaia delako, bi aldagai hauek batera aurkeztea interesgarria izan daiteke.

Robert Fishmanek, hiru gidaritza mota bereizten ditu Europako Mendebaldeko trantsizioei buruzko entseguan¹³: Alde batetik, Erregimenak berak zuzendutakoa, pasibitate eta

251. Orrialdea.

¹² Alcántara, Sáez, Manuel (1992). *Las transiciones a la democracia en España, América Latina y Europa Oriental. Elementos de aproximación a un estudio comparativo*. España: Revista del Centro de Estudios Constitucionales. 13. orrialdea

¹³ Fishman, Robert (1990). *Rethinking State and Regime: Southern Europe's Transition to Democracy in World Politics*. Erresuma Batua: Cambridge University Press.

Estatuko erakundeen hostilitatea oraindik presente egonda, armadarena adibidez. Bigarrena, Estatuko erakundeek zuzendutakoa (erregimenaren aurka mobilizatzen den armada esaterako, Grezian gertatutakoa), kasu honetan lidergo autoritario bat arduratzen da prozesuaren hastapenez, eta aurrera atera dadin oposizio demokratikoaren kooperazioa beharrezkoa da. Hirugarren kasuan, Estatua desegituratu eta armadaren sektore batek erregimena bertan behera uzten du. Espainia lehenengo kasuaren adibide bezala aukezten du eta Portugal aldiz hirugarrenarena. Nahiz eta aurrerapen bat egin, atal enpirikoan presente izango dugu zein aktorek izango duen agenda politikoan agintzeko eta ekimen politikoa aurrera eramateko gaitasuna.

b) Erakundeak

Hurrengo puntua aztertzen hasi aurretik, argitu behar da trantsizio garaian, instituzioak ez direla soilik aktoreei oztopoak edo mugak ezartzen dizkieten erakundeak, prozesuan zehar aktoreek hartutako hautaketa politikoaren emaitza ere badira. Erakunde politikoek (aurreko erregimenetik oinordetuak zein ezarri berriak direnak) erregimen aldaketan **paper bikoitza** jolastu dezakete. Batetik, aktoreen artean errekurtsoen banaketa bultzatu dezakete banaketa ekitatibo baten alde, baina aldi berean aldebakarreko nagusitasuna eragin dezakete. Bigarrenik, ziurgabetasun egoera murrizteko ahalmena dute, modu honetan aktore ezberdinen pertzepzioetan eragin dezakete errekurtsoen gaineko banaketari dagokionez edo estrategien kostu eraltiboari dagokionez. Aktoreen errekurtsoen banaketa erakundeen eraginagatik aldatu daiteke, baina ez arrazoi horregatik bakarrik: Aukera politikorako egituran edo eliteen egituran suertatu daitezkeen aldaketek ere eragina dute. Erakunde formal indartsuek estrategia koertzitiboaren kostuak garestitzen dituzte.

c) Ziurgabetasuna:

Demokrazia, emaitza ziurgabeak sortarazi ditzakeen oreka bat da, bere erakunde formalak ziurrak diren bitartean; oreka ez-demokratikoek marko instituzional ziurgabe eta informaletan emaitza ezberdinak sortarazten dituzte (Przeworski 1991). Erregimen aldaketa prozesuan dagoen desoreka erakundeen eta emaitzen ziurgabetasunarengatik bereizten da, baita aktoreen akzio posibleen emaitzaren inguruko informazio okerragatik. Faktore honek **aktoreen preferentzietan aldaketak suertatu ditzake**, gerta daiteke ziurgabetasuna hain handia izatea non errekurtsoen banaketa alde batera utzita, aktoreen estrategien aukeraketan eragin gehiago duen.

Lehen esan bezala, erakunde iraunkor eta eraginkorrek estrategia koertzitiboak murrizteaz aparte, ziurgabetasuna murrizteko joera dute. Dakigunez erregimen aldaketa prozesuak erakundeen gainbeherarekin edo erakundeen aldaketarekin harreman duta daude zeinak ziurgabetasun egoera areagotzen duten. Ziurgabetasun egoera baxua edo gradu ertainekoa bada, koertzio edo kooperazioaren erabilera errekurtsoen banaketaren eta estrategia bakoitzaren kostu erlatiboaren arabera egingo da normalean. Kontrara, ziurgabetasuna altua bada, aktoreek euren aukarrien boterea gehiegi estimatzen badute edo estrategien kostuaren kalkulu okerrak egiten badituzte, litekeena da aktoreek koertzioaren ordez kooperazioa nahiago izatea.

d) Eliteen egitura

Aurreko erregimenaren ondareak aktoreen hasierako konstelazioa determinatzen du eta aktore hauen hasierako interakzio egitura ezartzean zeresan handia du: Eliteen egitura, a) elite integrazioa: Euren ekintzak koordinatzeko elite-segmentuek duten kapazitatea eta b) elite bereizketa: elite-segmentuek bai estatuarekiko edota beraiekiko duten autonomiaren arabera definitzen da. Bereizketa gradu eta integrazio graduaren arabera koadro hau aukezten digu:

2.Taula: Gelamanek teoriaren arabera elite egituren ideal tipoak:

Elite integration/Elite differentiation	Low differentiation	High differentiation
High integration	Monolithic elite (Communist regimes)	Consensual elite (democratic regimes)
Low integration	Divided elite	Fragmented elite

Iturria: Gel'man, 2008: 164

Hein batean, eliteen egiturak ere estrategien kostu erlatiboan eragina du; elite monolitiko baten existentziak aktore dominatzaile baten errekurtsoen nagusitasuna adierazten du. Eliteak bi kompetentzia taldetan banatuta badaude, errekurtsoen banaketa antzekoa izango da normalean. Aldiz, elite egitura zatikatuta badago, litekeena da aktore batek ere ez errekurtsoen nagusitasuna lortzea. Eliteen egiturak, erakundeekin batera erregimen aldaketa garaiko ziurgabetasunean eragiten du. Ziurgabetasun egoera baxuagoa da elite monolitikoa existitzen den unean, estrategia koertzitiboak erabiltzen dituelako normalean (azken finean errekurtsoen nagusitasunaren jabe da). Elite banatuak gradu ertaineko ziurgabetasun egoerari aurre egin behar dio, aldiz zatikatutako eliteak ziurgabetasun gradu altuenari. Era berean, gobernatzen duen talde kohesionatuak oposizio zatitu bati aurre egin behar badiu, errepresioaren kostua baxuagoa izango da seguruaski. Aldiz oso disziplinatua den oposizioari aurre egin behar badiu koertzioaren kostua altuagoa da aktoreen arteko errekurtsoen oreka edozein dela ere.

Azken aldagai honekin, **liberalizazio politiko prozesua** lotu dut dudarik gabe eliteen egituraren aldaketak sortarazteko gaitasuna izan dezakeelako. Liberalizazio politikoa erregimen autoritariotik abiatutako eskubide zibil eta politikoen berdefinizio eta hedapen prozesua da, adierazpen indibidual eta akzio kolektiboaren kostuak murrizteko joera duena. Erregimen autoritarioetako eliteek liberalizazio prozesuak abiatzen dituztenean **oposizioa murriztu edo kooptatzeko helburuarekin** egiten dute; Gizarteari eskaintzen zaizkion aurrerapen hauek ez dira itzuliezinak, etapa honen bereizgarri bat da boterearekiko dependentzia mantentzen dela eta boterea modu arbitrarioan erabiltzen jarraitu daitekeela (O'Donnell & Schmitter, 1986: 7). Garrantzitsua da demokratizazioarekin ez nahastea, demokraziaranzko trantsizioak erregimen autoritarioaren liberalizazioa baino gehiago suposatzen du. Liberalizazioak erreferentzia egiten dio errepresioaren lasaitzeari, eskubide politiko eta zibilen berrezartzeari oraindik ere hauteskunde kompetitiboak onartu gabe zeinek boterearen alternantzia eragin dezaketen.

Demokratizazioak botere alternantzia posible egin dezakeen erakundeen sorrerari egiten dio erreferentzia. Trantsizioek liberalizazioa eta demokratizazioa barne hartzen dituzte.¹⁴

Liberalizazio politiko eta demokratizazioaren arteko bereizketa argi izan behar dugu biek logika eta baldintza ezberdinei erantzuten dietelako. Liberalizazio politikoak, ohiko praktika komunak dira; irekiera kontrolatuaren aurrekariak izan dituzte erregimen autoritarioetatik zetozen trantsizio demokratiko askok (Cansino, 1986; 65). Liberalizazio politikoa **estrategia egokitzalea** da erregimen autoritarioak malgutzeko, egokitzeko ahalmenarekin du zerikusia. Trantsizioaren hurbileko kontrol iraunkorra lortzeko helburuarekin eta erregimenaren eraginkortasuna herritarren euskarri bihurtzeko asmoarekin eramaten dira aurrera.

Linzek dioen bezala, erregimen barneko erreformatzaileen proposamenak motz geratu daitezke benetako demokratizazioari dagokionez, sahiaerak porrot egiten badu prozesu guztia atzeratu liteke edota oposizioaren frustrazioak eraginda, prozesuaren erradikalizazioa gertatu liteke bien polarizazioa sortaraziz. (Linz, 1990: 20). O'Donnell eta Schmitterren planteamenduaren arabera, erregimen autoritarioen arrakasta unean jartzen dira martxan liberalizazioak egoera koiuntural lagungarriaz baliatuta aukerak maximizatu ahala izateko (O'Donnell eta Schmitter, 1986: 17). Bi autore hauek, eliteen literatura jarraituz, liberalizazioa eta demokratizazioa bera erregimenak eta bertako eliteek hartutako aukera bezala azaltzen dituzte. Helburua beti legitimitatea bilatzea da. Cansinoren iritziz ordea, elite agintariak erantzun instituzional gisa jartzen du martxan, erregimen autoritarioaren oreka eta jarraikortasuna arriskuan dagoenean; erregimenaren legitimitate mailak murrizteko tendentzia duenean eta gizarte mobilizazioak tendentzia gorakorra duenean (Cansino, 1986: 67). Krisi politiko testuinguruan, erregimen autoritarioaren jarraikortasuna eztabaidatzean denean bi helburu nagusi bilatzen dituzte. Batetik tendentzia deslegitimatzaileak baretzea eta bigarrenik instituzio propioen bitartez plano instituzionalera eramatea erregimenaren aurka nabarmendutako mobilizazio soziala eta ondorengo gatazka. (Cansino, 1986: 66)

Gelmanek, lehen aipatu ditugun faktore exogeno eta endogenoei buruz hitz egiten duenean sistema politiko barneko aldagaiei buruz ari da hizketan. Nahiz eta aitortzen duen kanpo eraginak erregimen aldaketan zer esana duela, eskeman ez du sistema politikotik kanpo egon daitezkeen aldagai exogenoei buruzko aportazioarik jasotzen. Charles T. Powell da trantsizio demokratizatzailean nazioarteko dimentsioa ikertzen duen lehenengoetarikoa. Espainiako trantsizioari buruzko artikulua sarreran komentatzen duen bezala, unanimitatez onartu da Schmitterren ikuspuntua trantsizioak ikertzerakoan¹⁵. Hau da; autotitarismotik demokraziaranzko trantsizioak indar nazionalen kalkuluetan oinarrituta argitu behar direla kanpo-aktoreek bigarren mailako paper marginalak jolasten dituztelako orokorrean.¹⁶ Aktoreen erabaki pertsonalak azpimarratzeko muturreko ahaleginean, trantsizio prozesuak nazioarteko testuingurutik aislatuta azaldu zituzten kanpo faktoreen eragina erabat ahaztuta.

¹⁴ Share, Donald eta Mainwaring, Scott (1986). *Transiciones via transacción: la democratización en Brasil y en España*. España: Revista de Estudios Políticos. 91. Orrialdea

¹⁵ Powell, Charles T. (1994). *La dimensión exterior de la Transición Española*. España: Revista del Centro de Estudios Constitucionales. 81. Orrialdea.

¹⁶ Schmitter, Philippe C. (1986). *An Introduction to Southern European Transitions from Authoritarian Rule Italy, Greece, Portugal, Spain and Turkey*. Baltimore: Johns Hopkins University Press.

XX. Mendeko bigarren erdialdean jazotako gertakari guztietan bezala, Gerra Hotzak markatutako nazioarteko testuinguruan, Portugalen 1974 Apirilaren 25ean gertatutakoak nazioartean oihartzuna izan zuen berehala. Turkiak, Greziak, Espainiak eta Portugalek Europako hegoaldeko defentsa integratzen zuten, erregimen militar autoritario hauetan europar mendebaldeko herrialde demokratikoek euren segurtasuna gordetzen zuten eta base iparamerikarrentzat toki seguru eta erosoak ziren¹⁷. Kanpotik eragindako indarrek trantsizioaren barne dinamikan eragina izan zuten eliteen kalkulu eta estrategiak euren mugetatik aratago ezarritako arau eta egiturek determinatu zituztelako hainbatetan (Whitehead 2001: 45)

Planteatzen dituen lau eszenatokiak:

Aktoreen baliabideen banaketa erlatiboa eta estrategien kostu erlatiboak konbinatzen baditugu, bi bider biko taula bat osatu dezakegu erregimen aldaketa prozesuan zehar posible izan daitezkeen lau agertokiak aurkeztuz. Ezkerraldeko bi eszenatokietan Aktore dominatzaileak koertzioaren estrategia darabil kooperazioarena baino merkeagoa delako. Gelmanek eszenatoki terminoa darabil emaitza terminoaren ordeaz goiko ezkerreko kasuak ez duelako emaitzarik argitzen. “War of all against all” eszenatokiak gatazkaren jarraipen batera darama (eszenatoki hori gatazka etniko edota gerra zibilekin dago erlazionatuta, ez darama oreka egonkor batera).

Matrizeko behekaldeko ezkerreko kasuan aktore batek botere guztiak bereganatzen ditu, eszenatoki honetan beraz argi eta garbi aktore dominatzaile bat dago (lider karismatiko bat, alderdi dominatzaile bat...) zeinak aktore subordinatuen kooperazioa alde batera utzita agindu dezakeen. Aktore subordinatu hoiak ezin dezakete erregimena desafiatu zigor arrisku handi bat gainditu gabe. Aktore nagusiak oposizioa zanpatzeari ekiten dio koertzioaren balio erlatibo baxuagatik. Aktore dominatzailea berme instituzionalei esker bere nagusitasuna bermatzeko gai bada erregimenak oreka iraunkor bat lortu dezake aktoreek ez dutelako aldaketa sustatzeko pizgarririk. Eszenatoki honek egoera autoritario batera darama eta erregimen ez demokratiko baterako trantsizio bezala deskribatu daiteke.

3º Taula: Gelmanek plantatutako eliteen gatazken emaitzen eszenatoki posibleak.

Balance of resources/costs of strategies	Koertzioa kooperazioa baino merkeago	Kooperazioa koertzioa baino merkeago
Errekurtsoen birbanaketa aktoreen artean	“War of all against all”	“Struggle according to the rules” (institutional compromise)
Errekurtsoen banaketan aktore bat gailentzen da	“Winner takes all”	“Cartel-like deal” (co-optation of subordinated actors by the dominant actor)

¹⁷ Lemus López, Encarnación (2012). *La transición Iberica. Ruptura frente a reforma en las democratizaciones de Portugal y España*. España: Hispania. 108. orrialdea

Iturria: Gel'man 2008: 162

Eskuineko zutabeko bi kasuetan, koertzioaren kostua kooperazioarena baino altuagoa denean aktore dominatzaileak aukera ezberdinak izango ditu: Batetik, aktore subordinatuari akordio tazitua eskeini diezaioke (kartel akordio modura izendatu dezakeguna). Honek esan nahi du aktore dominatzaileak bigarren mailako aktoreekin bere eskura dituen errekurtsuak konpartitzen dituela erabaki garrantzitsuetan erabateko kontrola mantentzen duen bitartean (bigarren mailako aktoreak errestrikziorik ez duelako ezartzen). Aktore subordinatua aktore dominatzaileagatik kooptatua da normalean eta errekurtsoen gabezia duenez ez du statu quoa zalantzan jartzeko ahalmenik. Beste era batera esanda, aktore subordinatuak estrategia dominatzailea jarraitzen du.

Ez da harrizkoa akordio hauen ondorengo emaitzek politika lehiakor bat eta benetako zuzenbidezko estatu bat ez sortzea, horren ordez hauek saihesten dituzte. Instituzio demokratikoak aktore dominatzailearen botere politikaren itxurakeri bilakatzen dira benetako funtzionaltasunik gabeak. Aktore subordinatuek euren errekurtsoen gorakada bat badute autonomia gradu esanguratsua lortu dezakete eta kartel akordioa apurtu daiteke. Kasu horrek, eliteen arteko gatazka eremu bat irekiko luke berriro ere: goiko eskuineko eszenatokira pasatzea aukera bat litzateke baina irtenbide ezberdinak egon daitezke: Koertzioaren kostua kooperazioarena baino erlatiboki merkeago bihurtu daiteke eta hori gertatzen bada, baliteke aktore dominatzaileak aktore subordinatuen errepresiora pasatzea eta ez boterea konpartitzera. Kasu honeta eszenatokia “winner takes all” bilakatzen da.

Kartel antzerako akordioak erregimen hibridoa sortu dezake baina biak ala biak, lehen aipatu bezala epe luzera, desegonkortasunera edota erregimenaren kolapsora eraman dezakete.

a) dominant power politics: aktore dominatzailea subordinatuak baino askoz indartsuagoa denean.

b) Feckless pluralism: aktore subordinatuak aktore dominatzailearen aurrean euren autonomia mantentzeko gai badira.


Azken eszenatokia, “struggle according to the rules”, konpromezu instituzionalaren eszenatokia posible da baldintza jakin batzuk ematen badira: errekurtsuak ekitatiboki banatuta badaude eta koertzioaren kostua biziki neketsua edo garestia bada. Baldintza hauetan, aktoreek “presoaren dilema”-ri aurre egin behar diote. Biek ala biek, printzipioz, elkarrekiko koertzioa nahiago dute winner takes all eszenatokira pasatzeko, hala ere gerta daiteke elkarrekiko kooperazioaren alde egitea ziurgabetasun maila altua denean. Berme instituzionalak aktoreen kooperaziorako pizgarriak dira, akordioen urraketak ekiditen dituzte. Arau demokratikoen inposaketak demokraziaranzko bidea irekitzen du. Honek koertzioaren erabilera blokeatuko luke nahiz eta aktore bat errekurtsoen banaketan unilateralki gailentzen den (hau momenturen batean ekidiezina da) era berean, arau berriak “izoztea” eragingo luke elkarrekin onartutako eta eratutako erakunde esker. “struggle according to the rules” benetako egoera demokratiko bat ezarri dezakeen bide bakarra litzateke.

2.3 Metodologia

Lanean Espainia eta Portugaleko erregimen aldaketen sakonera demokratikoan eragin zuten faktoreen garrantzia aztertuko dugu metodologikoki era konparatuan. Iberiar penintsulako bi herrialdeen garapen historikoan antzekotasunak aurki ditzakegu XX. Mende osoan zear. 70. Hamarkadan, epe berean suertatzen da erregimen aldaketa eta bi erregimen autoritarioak ordeztu egiten dira. Demokratizazio mailaren sakontasuna demokrazia liberalaren intentsitate ezberdinekin azalduko dugu. Demokratizazio sakonago edo apalagoari buruz hitz egitean demokrazia liberalaren intentsitateari egingo diogu erreferentzia. Minimoa eskubide indibidual formalean bermea barne hartzen duena litzateke. Demokratizazio sakonagoak eskubide politiko formalez gainera, eskubideak esparru ekonomikora zabaltzen dituena ekonomikoak barne hartzen dituena. Zeozer konkretuarekin, konstituzioarekin balorea.

Demokratizazio maila **aldagai dependientearen aldakortasuna azaldu ahal izateko hiru aldagai esplikatzaile** jaso ditugu atal teorikoan: gizarte mugimenduen dinamika, modernizazio ekonomikoa eta elitei buruzko literatura. Demokratizazioaren eta erregimen aldaketen ikerketa esparrua oso landua izan da eta garapen kontzeptual handia du atzetik. Autore ezberdinen ekarpenen interdependentzia argi izanik, lan honen helburua ez da autoreen aportazio edo paradigma bakoitzaren garrantzia eztabaidatzea izango. Nahiz eta elementu komunen presentzia existitu, ezin dezakegu modelo teoriko komun baten erabilera orokortu eta horregatik aportazio guztiek trantsizio demokratikoak azaltzeko errelevantzia dutela argi utzi behar da. Kontrolerako aldagai modura eragin gopolitikoak izendatu dut, berez aldagai independentea ere bada. Kontrolerako aldagaia izanik aldagai independenteetan ez ezik, aldagai dependienteen eragiten du prozesu guztian zear. Kontuan izango dugu errelatoan zear badakigulako erregimen aldaketak baldintzatu zituela, une oro. Argitu behar dut azken hau ez dela gure ikerketaren zentroa; jaso ditugun hiru aldagai independenteen konparaketan zentratuko naiz **dinamika endogenoari garrantzia** emanaz.

2.Kontzeptu Mapa:



Iturria: nik neuk egin.

Garapen sozioekonomikoa operazionalizatzeko azken hamarkadan herrialde bakoitzaren errenta per capita, eskolarizazio indizea eta sektore ekonomikoen garapena konparatuko ditugu; konparaketa errazena izango da indikadore objektiboez baliatuko garelako. Eliteen eraginaren operazionalizazioan bi segmentu kontuan izango ditugu. batetik erregimen

barneko kohesio gradua eta bestetik oposizioaren kohesio gradua. Gradu hoi arabera bien arteko interakzio eta portaera zein izan zen azalduko dugu, gehien bat elite segmentu ezberdinen estrategien aukeraketa errekurtsoen jabetzaren arabera determinatuko da. Bukatzeko, gizarte mugimenduen ekarpenean, jakinik erregimen aldaketak mobilizazio sozialerako aukera berezi aproposak direla aukera politikorako egituraren konfigurazio unean atentzioa jarriko dut. Kontrolerako aldagaia izendatu dugun eragin geopolitikoan kontuan izango dugu Gerra Hotzeko nazioarteko testuinguruak hiru aldagai independenteetan eragin zuela. Hurrengo atal enpirikoan menpeko aldagaia neurtzen abiatuko gara, errelatoaren helburua menpeko aldagaiaren azken produktua esplikatzea da.

Irakurlea atal honetara helduta konturatuko da marko teorikoan emakumeen presentzia falta nabaria dela eta beraz lanak ez dituela araudiak jasotako irizpideak betetzen. Trantsizioen literatura hegemonikoa eliteen ikuspegiari lotuta dago, eliteen teoriak ez du emakumeen aldarrikapenaren literaturarik jasotzen. Análisi feministek aldarrikatu dute prozesu hauetan emakumeen papera alde batera uzten dela, (Paleo eta Diz, 2014:220). Lan honen atal teorikoan agertzen diren Lipset eta Huntington autoreak zituzten dituzte esplizituki ohartaraziz autoreek erregimen demokratikoak lortu zirela baieztatzen dutela emakumeei sufragio eskubidea aitortu baino lehen. Autore hauen análisis enpirikoek emakumeen presentzia sistematikoki baztertu eta inbisibilizatu dute. Gure bi eruedetan ez da halakorik gertatzen, 70. hamarkadan eta Europako mendebaldean onartezina litzatekeelako demokrazia lortu izana baieztatzea emakumeen eskubide formalak kontuan hartu gabe. Orrialde beran aldarrikatzen dute parte hartze formaletik haratago beharrezkoa dela emakumeak erakunde demokratikoetan presente dauden aztertzea eta beraien interesak eta politika publikoen perspektibak agenda politikoan kontuan hartzen direla aztertzea.

2.4 Hipotesiak

1. Geroz eta presio mendebaldar gehiago, demokratizazio sakonago bat emateko aukera murriztuagoa izango da.
2. Geroz eta garapen sozioekonomiko altuago, demokratizazio sakonago bat emateko aukera gehiago.
3. Gero eta erregimeneko eliteen arteko kohesio handiago, orduan eta demokratizazio apalagoa. Era berean, geroz eta oposizio kohesionatuagoa demokratizazio sakonagoa lortzeko aukera gehiago egongo da.
4. Eliteenganako gero eta gizarte mugimendu autonomoagoak demokoratizazio sakonera handiagoa izango da.
5. Geroz egoera ekonomiko mesedegarriagoa, eliteen arteko kohesioa indartsuagoa izango da.

3 ATAL ENPIRIKOA

3.1 Portugal

Antonio de Oliveira Salazarrek inplutsatutako Konstituzioak **Estado Novo-a** instituzionalizatu egiten du 1933. urtean. Indarrean sartzen den Konstituzioa, 1926an 1º Errepublikan bertan behera utzi eta boterea Estatu kolpe bidez hartu zuen diktadura militarren prozesu politikoaren emaitza izan zen. 1928an Coimbrako unibertsitateko irakaslea zen Salazar Ekonomi Ministro izendatzen dute. Krisialdi ekonomikoari aurre egin ondoren, pixkanaka diktadura militarreko figura nagusia bilakatzen da hartutako neurrien arrakastarengatik 1932ko uztailean ministroen kontseiluko presidente bilakatzen den arte. Estado Novo-a boterea modu diktatorial, korporatibo eta burokratikoaren erabilerarengatik ezaugarritu zen. Erregimenak eliza katolikoaren babes instituzionala izan zuen; katolizismoaz gainera, izaera nazionalista oso indartsuarengatik ezaugarritu zen.

Konstituzioan herri subiranotasuna aipatu eta botere banaketa aurreikusten da errepublikako presidentea eta Kontseilu Nazionalaren artean. Praktikan Asanbalada Nazionalak errepublikako presidentearen egitekoa dekoratiboa bihurtzen du. **Salazarren figuran**, Estatuko buruzagiaren baitan kontzentratzen ziren **botere garrantzitsuenak**. Edozein eduki liberal praktikan urratuak izan ziren sistematikoki, botere judiziala ez zen independientea eta hauteskunderen ustelkeria iraunkorra zen legitimitatea bilatzeko besterik ez bait ziren ospatzen.

Erregimenak Estatu-egitura propioa zuen bere aparailu errepresibo propioarekin (PIDE, polizia politikoa). Uniao Nacional, Salazarrek berak 1931an fundatutako alderdi bakarreko ordezkariak ziren erregimeneko aparatuko erakundeetako jabeak. Hala ere, alderdi bakarrek ez zeukan diktadura faxisten izaera hegemoniko bera, eliteen kaptazioa profil teknikoaren arabera egiten zelako eta ez profil politikoaren arabera (Sanchez Cervello, 116). Lan mundua sindikatu bertikalaren menpe zegoen non Estatuak langile eta jabeen arteko tirabiretan azken hitza zuen. Salazarren erregimenaren izaera antikomunista zela eta alderdi sozialista eta komunistak jazartuak izan ziren, klandestinitatean jardun zuten diktaduran zear eta alderdietako liderrak exiliatuak izan ziren.

Espainiako Gerra Zibilean Frankori lagundu ostean, Bigarren Mundu Gerran neutral mantendu egiten da Portugal. 1944an Azoreseko Lajeseko base militarren erabilpena negoziatzen du Erresuma Batuekin lehenengo eta AEB-ekin ondoren 1945ean, Gerra Hotzeko testuinguruan jada. Erregimenaren diskurtso eta politika antikomunistak herrialdea AEB-ekin aliatzea eragiten du, horrela 1949an NATO-ren fundatzaileetako bat bihurtzen da mendebaldeko blokearen barne izatera pasatuz.

Kolonialismoa Estado Novoaren ardatz nagusietako bat kontsideratu dezakegu, baita bere ospearen gakoetako bat (60. Hamarkadara arte behintzat). 1930. Urtean publikatutako Akto Kolonialak, bi entitate; metropolia eta inperioa konsagratzen ditu, bata bigarrenaren integrazioaren menpe. Salazarismoak nazionalismo defendatzaile eta kontserbadorea

praktikatu zuen¹⁸. Estado Novoko eliteentzat inperioa mantentzea ezinbestekoa zen herrialdearen independentzia bermatzeko. Nazio nortasuna koloniek bat ulertzen zen eta horregatik erregimena behin eta berriz saiatu zen koloniak mantentzen. 1951an deskolonizaziotik aldentzeko helburuarekin, Konstituzioa berrikusi egiten da, Kolonia eta Inperio hitzak itsasoz bestaldeko probintzia terminoagatik ordeztuz. Ildo berean, Indigenen Estatutu malguago eta onargarriagoa onartu egiten da. 1955. Urtean eztabaida luzeen artean, Portugal NBE-n sartzen da. Lehenengo momentutik interpelazioak jaso zituen bere lurralde ez autonomoengatik.

1960an, NBE-ak kolonia bezala kalifikatu zituen Portugalen administraziopean zeuden lurraldeak eta hauei autodeterminaziorako eskubidea aitortu zien¹⁹. Urte gutxitan gerra koloniala zabaldu zen lurralde hauetan eta gerrilla eta miliziak altxatu ziren Portugaleko Erregimenaren aurka: Angolan lehenengo 1961ean eta Guinea-Bisaun eta Mozambiken beranduago 1964an. Gerra Hotzeko testuinguruan Angola eta Mozambikeko Askapen nazioanalerako mugimenduek Sobietar Blokearen laguntza jaso zuten. Portugalen arazo ekonomiko larriak ekarri zituen gerra luze honek: inflazio handia, boikot diplomatikoa eta nazioarteko aislamendua besteak beste. Gainera, Salazarren erregimena momentu horretatik aurrera hasten da nazioartetik zalantzan jartzeko.

Gerra kolonialaren kostuen hazkundeak eta horrek eragindako ezegonkortasun ekonomiko eta sozialak Estatu portugesa bide ekonomiko berri bat bilatzera eraman zuen. Alde batetik inportazio kolonialak ordezkatzeko eta bigarrenik gerra finantziatzeko. Koloniak herrialdearen errekurtsio iturri nagusia ziren, gerra finantziatzeko erabiltzen zirenak. Irtenbidea nazioarteko merkatura irekiera mugatua eta ekonomiaren liberalizazioa izan ziren. Esan bezala, ekonomiaren liberalizazioa oso kontrolatua eta moderatua izan zen Salazarrek uste osoa zuelako irekiera ekonomikoak eta kanpoko inbertsioen sarrerak herrialdea dependentzia eta kanpo kolonizaziora eramango zuela²⁰. 60. Hamarkadan nazioarteko ekonomiaren fluxu lagungarriak sektore industrial eta finantziarioaren hazkunde azkar eta dinamikoa eragiten du²¹, baina inbertsioen monopolioen ondorioz hazkunde ekonomikoaren eraginak ez dira gizartera guztiz trasladatzen.

1968ko Irailaren 27an Marcelo Caetanok Salazar ordeztu du eta Ministroen kontseiluko presidente izendatzen dute. Momentu horretatik aurrera, protestek eta konfliktibitate sozialak gora egin zuten. Testuinguru honetan Caetanok erregimenaren irekiera, liberalizazioa martxan jartzera behartuta ikusi zuen bere burua. “**Udaberri Marcelista**”-ri hasiera ematen zaio, etapa honek erreferentzia egiten dio Caetanoren gobernu hasierako liberalizazio politiko moderatu

¹⁸ Honek ere, europako diktadura totalitarioetatik bereizten du. Erregimen Salazaristaren ezaugarrietan sakontzeko: Sanchez Cervello, Josep (2003). *Características del régimen salazarista*. España: Historia Contemporanea.

¹⁹ NBE-ren 1514. Abenduaren 14ko Resoluzioa. *Declaración de garantías de independencia para las colonias y los pueblos*. <https://www.un.org/es/decolonization/declaration.shtml> 2019ko Maiatzaren 27an kontsultatua

²⁰ Gomez Fernandez, Ana Belén (2011). *La llegada de la democracia al Mediterraneo*. Universidad de Jaén: Historia Actual Online. 9. orrialdea.

²¹ Sousa Santos, Belen (1984). *A crise e a reconstrução do Estado em Portugal (1974-1984)*. Portugal: *Revista Critica de Ciencias Sociais*. 19. orrialdea

garaiari. Bere helburua erregimenaren “Eboluzioa jarrikortasunean” lortzea zen. Modernizazio ekonomiko eta sozial garai hau bi urtez luzatuko da, epe horretan gizartean Estatu Novoaren benetako erreformaren itxaropena sortarazi zen.

Ordezkaritza teknokrata berriez inguratuta, aldaketak eta erreformak bultzatu ziren hainbat sektoretan. Pixkanaka Europako Elkarte Ekonomikora hurbiltzen da herrialdea, kanpo inbertsioei irekiera, obra publiko garrantzitsuak hasi eta hezkuntzaren demokratizazio eta irekiera planteatzen dira. Eskuinera eta zentrorra zihoazten oposizioko talde batzuk onartzen dira, exiliatuen buelta eragiten dutenak. Ala Liberaleko ordezkari teknokratak Asanblada Nacionalean sartzen dira. Aktibitate sindikalean polizia politikoaren botereak murrizten dira eta parte hartze eta hautaketa askatasunetik urrun oraindik boto eskubidea zabaltzen da. Caetanok politika kolonialari dagokionez, hautu militarrekin jarraitzen du negoziazioak baztertuz eta koloniei independentzia emateari uko eginez. Gatazka armatuak jarraitu zuen, Salazarrek egin bezala irtenbide politikotik aldentu egiten da.

Epe honetan, 1969ko erreforma konstituzionalaren ostean, lege sindikal bat onartu egiten da. 1969 eta 1974 bitartean sustatu eta fundatutako **Intersindikala**-ri esker lan mundua asko indartuko da erregimenaren aurkako erantzun fronte bezala mantenduz. Irekiera sindikalak, espero zenaren aurka, klima politikoa baretu ordez, gatazka larritu eta gertaeren aurreratzea eragin zuen aldagai sozioekonomikoen diktaduraren aurka sortu zituen eraginak biderkatuz. Langile mugimenduak ondorio sutsuetaraino eramane zituen lege berriak eskaintzen zizkion mugak bere egiturak sendotuz eta mugimendua borrokarako prest mantenduz. Honela, itsasoz bestaldeko gudak sutan jarraitzen zuen metropoliko alderdi sozialari zegokion liskarra goraka zihoan heinean. Testuinguru honetan, Gobernuaren erantzuna langile mugimenduaren aurkako errepresio bortitzera²² jotzea izan zen. Demokratizazioaren itxaropena bertan behera geratzen da.

Gerraren ondorioak gizarte osoak sufritu zituen, Caetanoren hartutako neurrietako bat derrigorrezko zerbitzu militarra lau urtera igotzea izan. Ia familia guztiek familiakide bat edo beste kolonietan edota armadan zituzten²³. Armadaren parte bat konbentziturata zegoen irtenbide politikoa izan beharko zela eta ez militarra²⁴, gerra irabaztea ezinezko ikusten zuten eta horregatik kanpainia militarrek konprometuz politikoz lagunduta egon behar zutela aldarrikatzen hasi ziren. Gerra Koloniala eta erregimena elkarlotuta zeuden eta erregimena gerratik itsututa zegoen, Estado Novoaren deusezte beharrezkoa ikusten zen arazo hau konpontzeko.

²² Errepresioa 30 urte lehenagoko Espainiako Gerra zibileko mailara heltzen da. Loff, Manuel (2007). *Marcelismo e ruptura democrática no context da transformaçap social portuguesa dos anos 1960 e 1970*. España: UNED, Historia Contemporanea. 160. orria


²³ Lemus López, Encarnación (2012). *La transición Iberica. Ruptura frente a reforma en las democratizaciones de Portugal y España*. España: Hispania. 109. Orrialdea.

²⁴ Sánchez Cervelló, Josep. (1995) *La revolución portuguesa y su influencia en transición Española*. Madrid: Nerea. 118. Orrialdea.

Diktaduraren krisia gero eta nabariagoa zen, gastu militarrek BPGaren %6,85 suposatzen zuten 1974an²⁵. Portugal eta bere kolonien arteko truke komertzialen arteko murrizketak gastu militarren desproporzionaltasuna are gehiago nabarmentzen zuten. Kolonietako militarren faltari aurre egiteko, Caetanok **1973ko udan dekretu berri bat** sinatu zuen **kolonietan militarren falta betetzeko**; neurri honen helburua Afrikako kolonietako ofizialen postuak betetzea zen. Karrera ofizialak zirenek, urteak atzerrian borrokatzen igaro ostean izugarriko atxekabearekin hartu zuten neurria²⁶. Nahiz eta dekretua argitaratu eta hilabetera bertan behera utzi, arrazoi hau erabakigarria izango da **Kapitainen Mugimendua, MFA-ren aurrekaria** izan zenaren mugimendu klandestino fundatzeko. Erregimenaren barneko zirrikituak gero eta nabariagoak izaten hasten dira.

Antonio de Spinolaren “Portugal e o Futuro” liburua ezegonkortasun sozial eta militar testuinguru horretan argitaratzen da 1974ko otsailean. Spinola jenerala, erregimen barneko figura nabarmena zen, Guinea Bisauko gobernari izendatu zuten 1968an. Soberan ezagutzen zuten kolonietako egoera zein zen eta urteak zeramatzan erregimenaren politika kolonialari zeharkako kritikak egiten. Lanaren muina Portugaleko politika koloniala eraladatzeko eskaera bat zen, itsasoz bestaldeko gerra armen bitartez gainditzeko ezintasuna nabarmentzen zuena. Erregimenaren ezintasuna salatu eta irtenbide federal bat proposatu zuen kolonietako arazoa konpontzeko. Martxoan Caetanok Spinola kargutik botatzen du, hartutako erabaki honek jenerala MFA-ren planteamendura hurbildu arazten du.

3. Mapa Kontzeptuala: Portugaleko trantsizioaren eskema Gelmanen teoriatik eratorria



Iturria: Nik neuk egin

1974ko Apirilaren 25eko MFA-ren pronuntziamenduak diktaduraren bukaera eragin zuen. Momentu horretatik aurrera eta trantsizio prozesuan zear, lidergotzari dagokionez, MFA-k, erdi mailako kapitainen mugimenduak hartuko du garrantzi gehien. Testuinguru koiunturalaren arabera erakunde barneko barne tentsioek figura bat edo beste gailentzea eragingo dute. **MFA protagonista** izan zen **egun horretatik aurrera**: erregimena bertan behera utzi, gerra kolonialarekin bukatu eta demokraziaranzko trantsizioa zuzentzeko konpromezua

²⁵ Ministerio da defesa Nacional (1986). *Livro branco da defesa nacional*. Lisboa. 150. Orrialdea.

²⁶ Akademia militarrean jasotako kurtso intentsibo baten bitartez kate militarrean kapitainen gradu bera lortzeko aukera eskaintzen zuten legeak.

hartu zuen momentutik. Ez zen printzipio demokratikoekiko babesagatik bereiztu, iraultzaren abanguardiarren funtzioa esleitu zuen dinamizazio kulturala eta botere politiko nagusien kontrolaren bitartez²⁷.

Iraultza gertatzen den momentuan, MFA-k errekurtsoen monopolioa irabazten du, horren adibide da Apirilaren 25eko gauean Askapen Nazionalerako Batzordearen²⁸ sorrera. Trantsizio prozesuaren berrikuspenaren funtzioa esleitzen zaio eta subiranotasuna duen organo bakarra bilakatzen da 1974ko maiatzaren 14ko legeak Egitura Konstituzional probisionala ezartzen duen arte. Lege honek egitura konstituzional probisionala aurkezten du non subiranotza organoak izendatzen diren: Askapen Nazionalerako Kontseiluaz (ANK) aparte, Presidentea, Asanblada Konstituziogilea, Gobernu Probisionala, Estatuko Kontseilu eta Auzitegiek osatuta. Uztailan argitaratutako dekretu baten ostean COPCON (Comando Operacional do Continente) Armadako indar militar bereziek osatutako komandoa eratzen da Krabelinen Iraultzak hasitako bide demokratikoa babesteko helburuarekin, MFA-ren adar armatua bilakatzen da. Otelo Saraiva, Apirilaren 25eko figura garrantzitsuenetarikoa izendatu zuten komandante goren.

Portugalen **politikaren erradikalizazio unea** bizi izan zen Apirilaren 25etik aurrera, militarren altxamenduak protesten erradikalizazio eta hazkundera dakar. Krabelinen iraultza gertatzen den momentuan, militarren aurreikuspenetik urrun, bat bateko mobilizazioek gidatu zuten erregimen aldaketa lehenengo asteetan. **Parte hartze politiko masibo garaian** eta konbultsio iraultzaile testuinguruan, indar politiko guztien diskurtsoa ezkererantz mugitu zen. Hurrengo asteko maiatzaren bateko manifestaldi jendetsuak herri mobilizazioen erakusle argienak izan ziren. Bat-batekotasun horrek azaltzen du 1974 eta 75 artean Portugaleko gizartean emandako aldaketa azkarra.

Behin erregimena bertan behera utzita, prozesu iraultzaileari hasiera ematen zaio. MFA-k hasiera batean Caetanoren gobernuaren aurkakotasuna erakutsi zutenen armadako sektore kontserbaadoretara jotzen du. Spinola izan zen lehenengo presidentea eta berak izendatu zituen lehenengo gobernu probisionaleko kideak. Koloniei zegokionez Spinolaren planteamendu federala motz geratzen da, praktikan gerra mantentzea suposatzen zuelako. Militarrek ez ziren kalera atera kolonietan tirabirekin jarraitzeko baizik eta behingoz arazoarekin bukatzeko. Gerrillen aurka hamar urte baino gehiago iraun zuen gatazka oso neketsua izan zen herrialde guztiarentzat beraz, hau ez zetorren bat ez MFaren espektatibekin, ez armadako gehiengoarekin, ezta gizarteko mobilizazio ezberdinekin. **Gerrarekin amaitzeko eman zuten kolpea** eta ez berdinarekin jarraitzeko. Era berean, Da Palma Carlos lehenengo ministroarekin desadostasunak izan zituen MFA-K. Berak mantendu zuen lehenengo pultsoa kapitainen mugimenduarekin; gobernuaren boterea aldarrikatu zuen erreferendum konstituzional bat eskatuz MFA subordinatzeko helburuarekin. ANK-k eskaerari uko egin ez ezik, dimititu arazi egiten du.

²⁷ Gómez Fernández, Ana Belen (2011). *La Llegada de la democracia al mediterráneo: las transiciones de Portugal, Grecia y España*. Universidad de Jaen:Historia Actual Online. 13. orrialdea

²⁸ Ejerzitoko hiru adarretako zazpi ofizial goren eta jeneralek osatzen zuten. Bere egitekoa ordena mantendu eta MFA-k gau hartan publikoki aurkeztutako programa inplementatzea zen: demokratizazioa, deskolonizazioa eta aldaketa ekonomikoa aurrera eramatea besteak beste.

Ekainean Spinolak III. Gobernu probisionaleko lehen ministro izendatzen du **Vasco Gonçalves**. Gonçalves militarra alderdi komunistaren posizionamenduari bat zetorren, modelo ekonomiko eta politiko berriaren definizioaz arduratzen da. IV. eta V. gobernu probisionaletako lehen ministro izango da ere bai 1975eko irailerarte. Hilabete hauetan Estatuaren interbentzioak ekonomian gora egiten du, nazionalizazioak areagotu ziren eta nekazal erreforma jarri zen martxan. Neurri hauek Langileen komisioek eta sindikatuek goraipatu zituzten. PCP-ren influentzia erakundeen barnean, bai sindikatu eta bai kaleetan asko hazi zen; alderdiak erregimen aldaketaren norabide politikoa gidatuko du sozialismorako trantsizioa agenda politikoan integratuz.

Ziurgabetasun egoera horretan, baieztatu dezakegun gauza bakarra aurreko **erregimenaren erregresioa blokeatuta** zegoela zen. Spinolak irailaren 28an deitutako manifestaldia sindikatu, langile komisio eta ezkerreko alderdien artean Estatu Kolpe modura ulertu zen. Boterea pertsonifikatzeko ahalegin horretan kaleetan manifestaldi bortitzak egon ziren, horren ostean dimititzera behartu zuten. Costa Gomes izango da presidente berria, MFA-ren proiektuaren aldekoagoa, berak gidatuko du prozesu deskolonizatzailea askapenerako mugimenduekin negoziaketak zabalduz. Spinolak berriro ere errekurtsoen inguruko kalkulu okerra eginda eta seguraski bere botere eta laguntza gehiegi estimatuz, 1975eko Martxoaren 11an militar kontserbadoreek Estatu Kolpe saiakera ematen dute “gobernu erradikalizatuaren aurka”. Saiakera hau COPCON ejerzitoko komando bereziak zapuztu zuen eta orain bai Spinola joko politikotik kanpo geratzen da, exiliora ihes egitera behartuta.

Inflexio puntu esanguratsua da Martxoaren 11ren ostean aurkitzen duguna. Spinolaren saiakerak MFA-ren instituzionalizazioa azkartu egiten du²⁹. Eszenatoki berri baterantz mugitzen da trantsizioa, momentu honetatik aurrera MFA-ren sektore ezkeriarrak marrazten duen eskema indarrez sartzen da jokoan. Gau horretan bertan Askapen Nazionalerako Batzordea eta Estatu Kontseiluaren disoluzioa dekretatu eta hauen ordez **Kontseilu Iraultzailea eta MFA-ren Asanblada** ezartzen dira. Kontseilu Iraultzailea, MFA-ren erakundetzaren isla da, bere organo exekutibo gorena bilakatzen bait da. Egun horretatik 1976ko apirilera, botere egituraren erakunderik garrantzitsuena izan zen.

Konstituzioa idazten hasi aurretik eta hauteskunde konstituzionalak ospatu baino lehen, 1975eko Apirilean **MFA-k alderdi politikoekin Akordio Konstituzionalerako Lehenengo Plataforma Akordioa** sinatzen du. Akordioaren helburua MFA-ren asanblada organo subirano bezala kontsideratzea zen, eraketa konstituzional berrian Kontseilu Iraultzailearen instituzionalizazioa bermatuz. MFA instituzionalizatu berria zegoen indar handiarekin eta alderdi politikoek ezin izan zuten ia ezer negoziatu, “struggle according to the rules” antzeko eszenatokia aipatu genezake negoziaketan. Kontseilu Iraultzaileak Asanblada Konstituziogilearen onarpena, Errepublikako Presidentearen izendapena, Asanblada legegilea disolbatzeko ahalmena eta Gobernu berria izendatzeko eskumena izango zuen. Alderdiak botere militarren proposamena onartu zuten **hauteskunde konstituziogileen deialdiaren**

²⁹ Rezola, Maria Inácia (2016). *Los militares en la revolución y en la transición a la democracia en Portugal*. Bartzelona: Publicaciones URV. 167. orrialdea

kontrapartida akordioan txertatuz. Alderdi politikoetako liderrek uste izan zuten behin Asanblada Konstituziogilea martxan jarrita, euren legitimitate demokratikoak militarren botere iraultzailea gaindituko zuela³⁰.

Hilabete horretan bertan Asanblada konstituziogilarako hauteskundeak ospatzen dira, parte hartze masiboa izan zen; alderdi sozialista garaile argia izan zen bozen %40arekin ia, alderdi sozialdemokrata bigarren, bozen %25-arekin eta alderdi komunista hirugarren bozen %12ra heldu gabe³¹. Pluralismo liberal mendebaltarraren aldeko alderdiek irabazi zituzten hauteskundeak eta emaitza hauen ostean, lehenengo bi alderdi bozkatuenek, PPD-k eta SPD-k, alderdi sozialistako eta sozialdemokratako zenbait diputatu konstituziogilek lehenengo paktuaren berrikuspena eskatuko diote etengabe Kontseilu Iraultzaileari; zearka hasieran hauen interbentzioaren beldurrez. Asanblada Konstituziogilearen independentzia aldarrikatzen dute botere militarrekiko. Momentu honetan hasten dira militarrek sortutako erakunde eta erakunde demokratikoen arteko tirabirak. Legitimitate demokratiko eta legitimitate iraultzailearen arteko eztabaidak markatuko du prozesua hurrengo hilabeteetan, finean errekurtsoen inguruko eztabaida dela baieztatu genezake, trantsizioaren kontrola beregantzeko eztabaida.

Eszenatoki honen aurrean, **alderdi politikoek jarrera indartu** egiten da, bi alderdi bozkatuenak **oposiziora pasatzen dira** MFaren neurritz gaineko boterea salatuz eta uztailearen erdialdean IV. Gobernu probisionalietik ateratzen dira protestatzeko. PCP-k jarraitu zuen estrategia hauteskunderi garrantzia kendu eta Gonçalvesen gobernura gero eta gehiago hurbiltzea izan zen. Demokrazia parlamentariaren gaitzespena eta demokrazia popularra aldarrikatzen dute.

Hurrengo hilabeteetan Portugaleko ezegonkortasun egoera **Gerra Zibilean erortzeko pausu batera** egongo da. Tentsio politiko klimaren goren uneari "Uda Beroa"³² deituko zaio. Uztaila eta abuztua bitartean, hegoaldean nekazal lurren okupazioak eta nekazal erreforma abian zeuden. Kontrara, iparraldeko nekazal eskualde minifundistetan, non eliza katolikoaren influentzia atzerakoi eta erreakzioarioa oso indartsua zen mugimendu antikomunista altxatu egiten da. Alderdi sozialistaren ezkerrean kokatzen ziren alderdien eta zenbait sindikatuen sedeen aurkako eraso bolada bizia izan zen. Alderdi sozialista hiriburu garrantzitsuetan, Lisboan eta Oporton, jendetza kaleetan mobilizatzen ibiliko da Gonçalvesen gobernuaren aurka. Gainera, hilabete hauetan Kolonia oietatik bueltatzen diren milaka familiek barne politikaren arazoak areagotuko dituzte MFA-ren aurkako jarreran posizionatuko baitdira militarrei irtenbide egoki bat bilatu ez izana leporatuz.

Hilabete honen bueltan, **MFA hirutan banatu egiten da**: alde batetik PCP-ren ildo jarraitu zutenak eta Gonçalvesen gobernuaren aldekoak; bigarrenik prozedimendu

³⁰Gomez Fortes; Braulio (2002). *De la revolución hacia la democracia representativa. El 2º pacto MFA-Partidos Políticos*. España: UNED, Historia y política. 250. orrialdea

³¹ Sánchez Cervelló, Josep (1995). *La revolución portuguesa y su influencia en transición Español*. Madrid: Nerea. 200. orrialdea

³² Uda beroa, portugesez *Verão Quente*-an Mozambike, Cabo Verde eta Santo Tomeko deskolonizaziek V. gobernu probisionalaren aurkako protestekin bat egiten dute.

demokratikoen defendatzaileak eta demokrazia pluralista baten aldekoak, alderdi sozialistaren gertukoak; hirugarrenik herri boterearen aldekoak eta herri mugimenduen autonomiaren defendatzaileak, COPCON ejerzitoko unitate bereziak babestuta. 1975eko iraileko MFaren Tancoseko asanbladan sektore moderatuak gehiengoa lortzen du. Berehala V. gobernu probisionalaren dimisioa behartu eta VI. Gobernua osatzen du Pinheiro de Azevedo almiranteak. Bozen proportzionaltasuna kontuan hartuta, alderdi sozialista eta alderdi sozialdemokrata indarrarekin sartu ziren gobernu berrian.

Gobernu berria osatuta, ezeinkortasun klima egoera ez da baretzen, greba masiboek jarraitu egiten dute diputuei zuzenean erantzukizunak eskatuz. Azaroan, Azevedok gobernuaren greba deklaratu eta zuzenean MFA-ri eskatzen dio gobernuaren jarduerako baldintzen berrezartzea. **Azaroaren 25ean** gertatzen da hau, **MFA-ren sektore ezkertiar erradikalen Estatu kolpe saiakera zapuzten** denean. Estatu kolpe saiakeratik PCP-k legitimitate eta indarra galtzen du alderdiari leporatzen zaiolako Estatu kolpea bultzatuarazi izana. Azaroaren 25a prozesu iraultzailearen bukaera kontsideratzen da.

Uda beroan zear ukatutako **eskumenak berriro ere bueltatzen zaizkio asanbladari**. Estatu Kolpe saikeraren ostean berehala lehenengo plataforma akordioaren berrikuspena eskatuko dute diputuek botere militarren aurrean haien independentzia beharra aldarrikatuz. Egoera koiunturala aldatu dela aitortuz, Komisio Konstituzional baten eraketa aurreikusten du Kontseilu Iraultzaileak oraindik ere ekimen politikoa bere gain hartuz. Nahiz eta MFA sektore moderatuen esku egon eta nahiz eta mendebaldeko demokrazia pluralista baten aldekoago izan, **ez dio prozesu konstituziogilearen tutelajeari uko egiten**. Barne eztabaida berri bat pizten da MFA-n, azkenik presidentearen hautaketa eta legeen konstituzionaltasunaren kontrola ezartzen dira negoziaketarako estrategiaren ardatz nagusi bezala.

1976ko Otsailaren 26an, Kontseilu iraultzaileak ordezkariak zuten alderdi politikoekin sinatutako **bigarren paktuan jaso ziren Konstituzioaren azkeneko egongo ziren baldintza zurrunenak**. Alderdi politikoei aldarrikatu zuten presidentea sufragio unibertsalez hautatzea. Sinatutako paktuan, nahiz eta presidentea sufragio unibertsal bidez hautatua izan, inplizituki errepublikako lehenengo presidentea militar bat izango zela jaso zen. Botere politikoen eraketa alderdien esku uzten da erakunde militarri autonomia legegile eta administratiboa aitortuz Kontseilu Iraultzailearen bitartez (Sanchez Cervello, 266). Kontseilu Iraultzailearen presidentearen organo laguntzailea izateaz gainera, organo politiko eta legegilea bilakatzen da gai militarrei zegokionez baita berme konstituzionala bermatzeko organoa. MFA-ren asanblada organo subirano bezala desagertu egiten da betirako, botere iraultzailea egitura konstituzionaletik banatuz. Akordioak **Kontseilu Iraultzailearen iragankortasuna** jaso zuen subiranotza organo bezala. Azkenik Asanblada Konstituziogileak apirilaren 2an onartu egiten du eta Krabelinen Iraultzaren bigarren urteurrenean indarrean sartzen da. Portugalen demokratizazio graduaren uniformizazio prozesua hasi egiten da alderdi sozialistak trantsizioa gauzatu ondoren; Mario Soaresek lehenengo gobernu osatzen duenean. 1982ko lehenengo erreforma konstituzionala izango da pausurik adierazgarriena MFA-ren arrastoa ezabatu egiten bait da testu konstituzionaletik. 1986an Portugal Europako Elkarrekin Ekonomikoa kide izatera pasatzen da; uniformizazioaren kontsolidazioa gertatzen dela baieztatu dezakegu.

4.Taula:Portugaleko demokratizazio sakonera gradu ezberdinak

	Prozesu Iraultzailea	Konstituzioaren Onartzea	Uniformizazio prozesua
Epealdia	1975eko Martxoaren 11tik, Azaroaren 25era	1975eko Azaroaren 25etik, 1976ko apirilera	1976ko apiriletik kontsolidazioa lortu arte
Aktore Nagusia	MFA erradikala	MFA moderatua eta VI. Gobernu probisional	Alderdi Sozialista-Mario Soares
Demokratizazio Sakonera	Herri demokrazia sakona	Demokrazia liberal sakona	Demokrazia liberal mendebaldar mugatua

Iturria: nik neuk egina

3.2 Espainia

Frankismoa 1936ko Estatu Kolpearen ostean eta Gerra Zibilean bando errepublikarra garaitu ondoren ezarritako erregimen diktatoriala izan zen. Hiru urte iraun zuen gerra irabazi ostean Frankoren lidergotza ez zen zalantzan jarri hurrengo 40 urtetan ia. **Botere guztiak bere gain** hartu zituen, Estaturburua zen, botere exekutibo, legegile eta judizialaren kontrola ez ezik, armadaren buruzagia ere bazen. Eliza frankismoaren ardatz garrantzitsuenetako bat izan zen, Katolizismo fundamentalista eta ultrakontserbadoreak *Franko* Jainkoaren doainez Espainiako “Caudillo” izendatzen du. Jasotako titulo hori botere kontzentrazioaren erakusle bat da.

Estatu Frankista katolikoan elizak hezkuntza eta zentzuraren kontrola izan zuen. Erregimenaren oinarrian eliza eta armadaz gainera, FET y de las JONS³³, alderdi bakarra aurki dezakegu. Errepublikaren aurkako Estatu Kolpearen aldeko Falange Españolak, Karlistek, monarkiaren aldeko alfonsinoek eta eskuineko erakundeek integratzen zuten alderdi berria. Mugimendu Nazionalaz ezagututako alderdiaren asanbladak oinarri organiko korporatiboa zuen. Erakunde frankistek ez zuten oposizio politikoan inolako disidentziarik onartzen. Komunismoarekin asoziatzen zituzten erregimenaren integratzaileak ez ziren gainerako adierazpen politikoak hauen aurkako errepresio eta jazarpen politikak aplikatuz. Frankismoaren lehenengo urteetan oso nabaria izan zen hau. Frankok langile mugimendua zanpatu zuen Polizia frankistaren bitartez pertsekuzio politika bortitzak aplikatuz.

Frankismoaren iraunkortasuna azaltzen duen faktoreetako bat bere malgutasun doktrinarioa eta nazioarteko testuingurura moldatzeko gaitasuna izan ziren³⁴. Boterean mantentzeko norabide aldaketa estrategikoak aurrera eraman zituen Frankok. Horregatik, koalizio frankistan, garaia arabera, influentzia ezberdina izango du sektore bakoitzak.

³³ Gaztelerazko siglak: Falange Española Tradicionalista de las Juventudes Organicas Nacional Socialistas 1937ko apirilean fundatutako alderdi bakarreko kideak ziren diktaduraren aparailuetako jabeak.

³⁴ Mellón, Joan A. (2012) *El Franquismo (1936-75) una dictadura militar fascistizada*. España: Huygens editorial. 42.orrialdea.

Gerra Zibilak ekarritako hondamendia oraindik presente, gerraosteko urte latzenetan Aliatuen garaipenak erregimenaren **nazioarteko aislamendua** eragiten du. 1946an NBE-k Ardatzeko potentziekin izandako kolaborazioarengatik herrialdea kondenatu egiten du harreman komertzialak eten araziz. Frantziako muga itxi egiten da eta Espainia Marshall planetik kanpo geratzen da. **50. hamarkadan**, mundu bipolarraren testuinguruan, herrialdearen posizionamendu geostrategikoari esker **Estatu Batuentzat aliatu** bilakatzen da. 1953an Madrilgo Paktuak sinatzen dira, akordioek II. Mundu Gerra osteko nazioarteko isolamendutik atera zuten Espainia Frankista.

Akordioetan laguntza ekonomiko eta kredituen trukean lau base militar estatubatuarren eraikuntza aurreikusten zen. Horrela, Espainia mendebaldeko defentsa sistemaren parte izatera pasa zen. Hala ere, bere izaera diktatorialagatik eta bigarren mundu gerran ardatzeko potentziekin izandako harremanarengatik erabaki hartzetik kanpo geratu zen NATO-n betoa jasan bait zuen. Akordioak arrakastatsuak izan ziren erregimearen irudia hobetzea lortu zutelako bai barnera begira eta baita nazioartean ere. Hilabete lehenago Eliza katolikoarekin sinatutako konkordatuarekin batera, bi paktuek mendebaldeko blokearen integrazioa suposatu zuten. Aislamenduaren bukaera 1955an NBE-n sartzean egikaritzen da.

50. Hamarkada bukaeran koalizio frankistan Opus Deiko teknokratek indarra hartzen dute, politika ekonomiko desarrollista berria martxan jartzeaz arduratuko dira. Gerraosteko autarkia ekonomikoak ekarritako estankamendu ekonomiko eta azpigarapena 59ko egonkortze planek konpondu zuten. Kanpo isolamendua gaindituta, herrialdea sozioekonomikoki hazi egiten da; kanpo inbertsioen sarrerari esker nazioarteko ekonomia fluxuaren onuraren ondorioak gizartera trasladatzen dira. Onura ekonomikoa erregimenaren aldeko legitimitatean bilakatzen da. Horrela, klasearteko lan harremanetan pixkanaka joko arau kapitalistak onartu zituen erregimenak eta Estatuko esku hartze gradu altu batekin konbinatu zituen estilo paternalista lagunduz³⁵.

60. hamarkadako liberalizazio ekonomikoa ez dator irekiera politikoaz lagunduta, hurrengo hamarkadan ere ez. Erregimena pluralismo mugatuaren itxurakeria egiten sahiatu zen legitimitatea plano politikora trasladatu nahian. Frankok urte hauetan **erregimena mantentzeko maniobrak** eraman zituen aurrera Carrero Blanco eta erregearen izendapenak, oposizioaren aurkako jarrera latza mantendu, Burgoseko prozesua 1970. urtean Nazioarteko iritzi publikoa auziaren aurka mobilizatzen da eta manifestaldi jendetsuek oposizioaren base soziala handitzea eragiten dute. Oposizioak frankismoaren azken urteetan mugimendu sindikalaren kontrola lortu zuen, alderdi komunistaren entrismoaren estrategiak indar sozial hau langileak erregimenaren aurkako mobilizazioan parte hartzeko eta Estatu autoritario barnean krisi egoera pizteko erabakigarriak izan ziren.

Portugalen Apirilaren 25ean gertatutakoaren ostean Espainian ziurgabetasun egoera pizten da. Arias Navarrok azken hilabeteetan hartutako neurriek ez zuten arrakastarik izan, Otsailaren 12ko espiritu erreformistak ez du inolako sinesgarritasunik. **Martxa berdeak** Iraileko

³⁵ Alcantara Sáez, Manuel (1992). *Las transiciones a la democracia en España, América Latina y Europa Oriental, elementos de aproximación a un estudio comparativo*. España: Revista del Centro de Estudios Constitucionales. 16. Orrialdea.

fusilamenduen arazoarekin³⁶ bat egiten du. Nazioarteko presioa gero eta indartsuagoa zen, arazoari irtenbide azkarra emanaz Arias Navarrok Marruekos eta Mauritaniari Saharako probintzia entregatu egiten die Madrilgo Akordioetan. Testuinguru honetan erregimenaren aurkako oposizioa oso indartsu agertzen da kaleetan; honi aurre egiteko salbuespeneko egoera aplikatzen du Erregimenak.

Erregimeneko ordezkariak bunkerraren posizionamendu kontinuitatik aldendu eta estrategiaz aldatzeko momentua zela ulertu zuten; eztabaida bat pizten da Estatuko egituren barnean. Espainian hasieratik Trantsizioa **hiru bandoen arteko negoziaketaren** parte da: erregimen barneko kontinuitateak, erreformistak eta oposizio rupturista. Hiruretatik inork ez zuelako behar besteko indarrak gainontzekoak menperatzeko. Bandoen arteko tira-bira horretan, Estatuaren erreforma prozesua azkartu eta bunker frankistatik atera zen trantsizioa gidatzeko ekimena.

Giuseppe di Palmak aurkezten duen **“Trantsakzio bidezko trantsizio”** terminoak³⁷ erreferentzia egiten dio erregimen autoritarioak hasitako trantsizio ereduari. Erregimen autoritarioak aldaketa politikoari mugak ezartzen dizkio eta prozesuan zear indar adierazgarri modura mantendu egiten da. Trantsakzio terminoak erregimen autoritarioaren elite eta oposizioko eliteen arteko negoziazioari egiten dio erreferentzia, negoziazioa ez da berdinen artean egiten erregimenak bere influentzia erabiltzen jarraitzen duelako. Beste modu batera irakurrita eta Gelmanen eskeman murgilduz, **hasierako aktoreen kontelazioan errekurtsioen nagusitasunean bat gailentzen da** aurreko erregimenarengandik jasotako ondarearengatik.

Erabiliko dugun eskemaren arabera eta aurreko atalean azaldu bezala, lege-ondareak trantsizio demokratikoan jardungo duten eliteen egitura determinatzen du eta joko arauak zein aktore bakoitzak bere eskura izango dituen errekurtsioak determinatuko ditu. Errekurtsioen banaketa horretan, une interesgarrienetarikoa bat da ea nork gobernatuko duen erregimen autoritarioa deuseztu eta erregimen demokratiko berria sortzen den bitarteko epean, hauteskunde libre eta demokratikoetan izendatutako gobernuak sortzen den bitartean. Hor determinatuko da zeintzuk izango diren etorkizuneko prozesu politikoaren oinarritzko arauak: ordezkarietarako erakundeek izango dituzten ezaugarriak edota hauteskunde legea garrantzitsuenak direlarik. (Linz, 1990:18)

Bi bide daude, Espainian eztabaida hau presente egon zen. Alde batetik, oposizio demokratikoak defendatuko du erregimen autoritarioak ez duela legitimitate nahikorik gobernatzen jarraitzeko eta gobernu probisional “gutziz demokratiko” baten alde egingo du. Honen aurkako argudioa da alderdi autodefinitu berriek ez dutela legitimitate demokratikorik hautesleek bere laguntza ematen dion arte. Benetan, honen atzetik dagoen eztabaidaren gakoa ez da legitimitate politikoa baizik eta errekurtsio politikoen inguruko eztabaida. Estatuko aparailuen desintegrazioa eta erregimen zaharretik irteten den lidergotzaren desegitea gertatzekotan, oposizio demokratikoak hauteskunderen aurretik gizartean aldaketa

³⁶ETAko bi kide eta FRAPeko hiru kideren exekuzioak Frankismoaren azken exekuzioak izan ziren.


³⁷ Di Palma, Giuseppe (1980). *Founding Coalitions in Southern Europe: Legitimacy and Hegemony*.

Erresuma Batua: Cambridge University Press. 166. orrialdea

garrantzitsuak planteatzeko aukera izan dezake, esaterako joko politikoan parte hartzeko baldintzak finkatu, edota konstituzio berria osatzerakoan direktibak ezartzea. Botere transferentzia ematen bada eliteen egitura eta konposaketa ezberdina izango dela dudarik ez dago.

Lehenengo eszenatokia posible da soilik, Espainian bezala, aurreko **Estatuaren aparatua ez denean guztiz desegituratu**. Erregimen autoritarioaren oinordeko legalen kontinuismoak statu quoaren eta erakunde militarren defendatzaile direnen beldurrak neutralizatzen ditu (Linz). Espainian Erregimena ez zen guztiz desintegratu eta Erregea izan zen kontinuismoaren figura. Arau legalak mantendu egin ziren, baita elite eta erakundeak. Honekin bat eginez, Estatuko makinaria frankista osatzen zutenen administrazioko, justiziako eta ejerzitoko kideen ibilbide pertsonala ez zen eten³⁸.

3º Mapa Kontzeptuala: Espainiako trantsizioa Gelmanen teoriatik eratorria



Iturria: nik neuk egina

Arazoi honegatik Frankismoko erakundeek aipamen berezia behar dute. 1973an, Carrero Blankoren hilketaren ostean gogor mantendu ziren; Arias Navarro eta Juan Carlos I. borbondar erregearen izendapenak horren erakusle argia dira. Espainian oposizio demokratikoa **ez zegoen legalitate frankista aitortzearen alde baina era berean ez zeukan haustura negoziatzeko ahalmenik**. Horregatik, erregimen frankistak ezarritako markoaren barnean, elite frankistaren menpe zeuden erakundeetatik abiatu zen trantsizioa. Juan Karlos I-ak legalitate frankista jarraituz Mugimendu Nazionalaren printzipioei fideltasunari zin egin zien eta Korte Frankistetan jaso zuen koroa 1975eko Azaroaren 22an Espainiako Estaturu bihurtuz. Modu berean, 1966ko Lege organikoa errespetatu zuen lehenengo gobernuburu izendatzerako momentuan. Erregeak Arias Navarro izendatu zuen lehen gobernuko presidente. Torquato Fernandez Miranda, Juan Karlos printzearen tutore ohia eta konfidantzazko gizona, Gorteetako eta Erreinuko Kontseiluko presidente izendatu zuen. Bi hauek izan ziren dikatadura frankistatik oinordetzan utzitako funtsezko erakundeak.

Lehenengo gobernuan, Suarezen eskaeraz, gobernu eta Kontseilu Nazionalaren arteko komisiio mixtoa martxan jartzen da eliteen kohesioa bilatzeko helburuarekin ziurrenik. Bitartean erregeak bere proiektua nazioartean aurkeztu eta legitimatzen du mitin ezberdinetan. Arazoa

³⁸ Paleo, Natalia eta Diz, Isabel (2014) *Sistema político español*. Madrid: Akal. 220. orrialdea

da Arias Navarro ez zetorrela proiektuarekin bat, bera ezin zen trantsizioa gidatuko zuen pertsona izan. **Frankismoarengatik itsututa** zegoen eta frankismoaren legalitatea, zazpi lege organikoak modu esplizituan jarraituz abiatu nahi izan zuen erreforma. Bunkerreko posizionamendu kontserbadoreenarekin bat eginez ez zuen ez amnistia, ez hauteskunde, ez lege berri ezta askatasunei buruzko konpromezurik hartu. Bitartean oposizioa konpromezu hauek hartu zitezten haustura eskatzen zebilen kalean manifestaldi eta herri **mobilizazio indartsuenak** sei hilabete hauetan bizi izan ziren.

1973ko krisiaren ondorioak gero eta nabariagoak izaten hasi ziren, arrazoi ekonomikoek bultzatu zituzten greba eta manifestaldi gehienak baina protesta hauek eskaera politikoez lagunduta joango dira. Askatasun sindikala, greba eskubidearen aitortzea, biltzeko askatasuna edo preso politikoen amnistia eskaerak esaterako. Mobilizazioek ez zuten gobernua boteretik kentzeko hainbesteko jarraipenik izan, **oposizioa bere boterearen mugaz kontziente, haustura demokratikoaren estrategia alde batera utzi eta etapa konstituziogilearen eskaeraren hasiera aldarrikatzen hasten da.** Gobernuaren erantzuna aldaketa oso mugatuak, inobilismoa, gorteen itxura aldaketa eta mobilizazioen aurkako errepresiora jotzea izan zen³⁹. Martxoaren 3ko gertakarien ostean⁴⁰, erregimenak erreforma bideratzeko zuen sinesgarritasuna hutsaren hurrengoa zen; Frankoren heriotzaren osteko itxaropena desagertu egiten da. Martxoaren 26an Koordinazio Demokratikoan batu zen oposizioa. Oposizioa indartuta eta kohesionatua bioentziaren monopolioa modu unilateralean mantentzeak gero eta kostu altuagoa izaten hasten da.

Erregeak gobernuburuarekin tira-birak izan zituen lehenengo momentutik, barne tentsioa gero eta nabariagoa zen eta azkenean Arias Navarrok uztailaren 1ean dimititu egiten du. Erregeak, iragarpenen aurka Suarez Bigarren Gobernuko presidente izendatzen duenean modelo erreformista martxan jartzen da. Kargua hartu eta bere lehenengo agerraldian iraganaren luzapenaren pertzepzioa ahaztuarazteko beharreak, erreforma konstituzionala eta hauteskunde orokorretarako konpromezua iragarri zituen. Egun batzuk pasata, elkartzeko manifestazio, asoziazio eta propaganda eskubideak onartu zituen. Hilabete beranduago lehenengo amnistia bat onartu zuen (odol delituak zituztenei ezik). Erregimenaren **erreformak beste abiadura eta norabide bat** hartzen du momentu horretan eta lidergotza pertsonifikatuaren figura argi eta garbi geratzen da.

Suarez erregimen barneko posizionamendu kontinuatik zetorren eta **lege ondarearen lekukoa jasotzen** du erreforma abiatzerako momentuan. Horrek emandako errekurtsioen botere nagusitasunaz baliatzen da erreforma aurrera eramateko. Erregimeneko zortzigarren eta azken legea izango zenaren **Erreforma Politikorako Legearen** negoziaketan legetik legerako aldaketaren marko juridikoaren oinarriak ezartzen ditu. Javier Tussell-ekin bat eginez, EPL-ren atal nagusia hauteskundearen iragartzea eta hauek suertatu zitezten marko instituzional

³⁹ Arias Navarrok gobernua UMDko militar demokratikoen aurkako atxiloketak agindu zituen 1975eko Ekainean.

⁴⁰ 1976ko Martxoaren 3an Gasteizen, Manuel Fraga ministroaren agindupean zegoen polizia frankistak, "grisek", greban zeuden langile asanblada tirokatu eta 5 langile hil zituzten.

minimoaren bermea⁴¹ izan ziren. Oposizioak ez du lege berriari xedapenak aurkezteko aukerarik. Hauteskunde irizpideak eta hauteskunde legea jada ebatzita egon ziren, baita eraketa instituzional berria.

Programa Gorte frankistetan aurkeztean ordezkariak hauteskunde legean zuzenketak txertatzeko baldintza azpimarratu zuten. Gorteetak hainbat ordezkari Suarezek berak babestutako UCD koaliziora lekualdatzen dira. Kideak konbentzitzeko eta erreforma politikorako legearen alde bozkatzeko funtzezko faktorea Alianza Popular, Manuel Fragako fundatutako alderdi berriak etorkizuneko hauteskundeak irabazi zitzaizkien itxaropena izan zen. (Gunther, 1999:51). Honek erreferentzia egiten dio Gel'manek dioenari, trantsizio demokratikoetan aktoreak eskuragarri dauden errekursoen kontrol gehiena lortzeko motibazioarekin jarduten dutela. (Gelman, 2008:158)

Ganbararen bi herenak baino gehiagoko gehiengo argiak onartu ostean, abenduan erreferenduma deitzen du gobernua. Koordinazio demokratikoak abstentzioa eskatzen du; baina erreferendumak izandako parte hartzeak eta **EPL-ren aldeko emaitza argiak monarkia eta Suarezren gobernuak inplizituki legitimizatu zituen**. Orain bai, momentu horretatik aurrera zentzua galtzen du guztiz oposizioaren haustura eskaerak. Suarezren gobernuak hartzen du hauteskundeak deitzeko ekimena. Bitartean, Gorte frankistak disolbatuta, hurrengo hilabeteetan ateratako lege eta dekretuek oinarritzko legeetan eraturako erakundeak indargabetuko dituzte.

Oraindik aipatu ez badut ere, prozezu guztian zear **militarren presentzia** azpimarratzea funtzezkoa da. Armada Frankoren defendatzaile fidela, orden frankistaren defentsa eta uztailaren 18ko ideal erdua mantentzeko prest egongo zela aurreikusten zen. Egoeraz kontziente, erregea lehenengo momentutik erregimenaren printzipioak jarraituz, disziplina eta leialtasuna adierazten dio agintaritzari. Armadarekiko hurbilketa pertsonala jarraitu zuen bien arteko konfidantzazko politika sortu zuena. Erreforma politikorako legea proposatzean arazoa ez zen oposizio demokratikoa baizik eta ejerzitoaren jarrera. Horregatik Suarez, erreformaren beharraz konbentzitzeko armadako agintari gorenekin biltzen da berehala 1976eko irailean gorteetan proiektua aurkeztu aurretik. **Ejerzitoak bere marra gorriak** ezarri zituen trantsizio prozesuan eta konstituzioaren eraketan eragina izango dutenak: monarkia mantentzea, batasun nazionala bermatzea eta alderdi erradikalen legeztatze eza, alderdi komunistari erreferentzia eginez.

Testuinguru honetan sartzen gara 1977 urte hasierara, oraindik ere botere diskrezionalaren erabilera nabaria da. EPL onartuta, momentuz ez dago alderdi politikorik legeztatuta, despenalizatuta bai eta pixkanaka alderdietako liderrak exiliotik bueltatzen dira. Urtarrilean erreforma prozesuaren tentsio une erabakigarria bizi izan zen. Atotxako Madrilgo atentatuetan PCE-ren militanteak ziren bost abokatu laboristen hilketek ez zuten bilatzen zuten helburua lortu, bandoen arteko tentsio klima piztea eta armadaren interbentzioa. Atentatuaren aurrean protesten erantzun (auto)kontrolatuak eta mobilizazio baketsuak, alderdiaren legalizazioaren

⁴¹ Tusell, Javier (1997). *La transición española. La recuperación de las libertades*. Madril: Temas de Hoy. 37. Orrialdea

aldeko jarrerak indartu egiten ditu. Tentsio politiko kliman, legalizazioaren truke **PCE-k monarkiaren aurkako oposizioari uko** egin eta Suarezren erreforma esfortzuen alde konprometitu zen. Apirilaren 9an, Aste Santuko jai egunengatik jendea oporretan zegoela aprobetxatuta, Suarezek trantsizioko erabaki garrantzitsua hartu zuen, PCE-ren legalizazioa. Alderdi komunistaren legalizazioaren konpromezuarengatik tendentzia moderatuak indartu zituen eta erreforma prozesuan oposizioko alderdi hegemenomikoa integratu zen behingoz. Krisi ekonomikoari aurre egiteko sinatutako kontratu soziala eta Komisionen Obreras sindikatuan zuen influentzia klabea izan ziren

Urriaren 25eko **Monkloako akordioak** alderdi politikoen arteko akordio bat izan zen 1978ko Konstituzioa aurretik. Akordioek erreforma ekonomiko eta politiko agenda zabal bat jaso zuten. Laangabeziari aurre egin, inflazioa gelditu langileen eskubideak aitortu eta ordezkariak sindikala aitortzea besteak beste. Guretzat interesgarriena da 1977ko hauteskundeetan aurretik **“paktismoa” modu instituzionalizatuan bilakatu zela eliteen interakzioari dagokionez**. Karl eta Schmitterrek erregimen berriaren *“itun fundazionala”*⁴² deituko diote akordio honi. Trantsizioaren ardatza bezala identifikatuz, erregimen berriaren biziraupena bermatuko duena. Monkloako paktuek, ezkerren aldetik erregimen frankista iraultzaren bidez boteretik kentzearen ideia guztiz ezabatu zuten, baita estatu errepublikar bat ezartzearen ideia. Iraultzaren ordezkariak, Frankismoko kideak izan zirenekin negoziatutako trantsizioa onartu zuten, hauen bitartekaritza lana onartuz. Konpromezu hauen trukean, lider erreformistek alderdi politikoen eta mugimendu sindikalaren legalizazioa onartu zuten, sindikatu bertikal korporatibista deseginez. Katalunia, Galizia eta Euskadiri autonomia mugatua aitortu zien. Tantsizioetan Paktu eta akordioen papera ulertzeko erreferentzia bilakatzen da eztabaida akademikoan.

Gizartee osoa tartean sartzeko esfortzuan bere helburua nagusia lortu zuen Suarezek. Neurrien inplementazioa lehia edo liskarretik kanpo gauzatzea elite eta klase sozialen artean **kontsentsuzko klima politiko indartsua sortaraziz**. Hilabete batzuk aurrerago Konstituzio demokratiko berriaren onarpenean laguntzeko eta funtzezko emaitzen ziurgabetasuna murrizteko balio izan zuen⁴³.

Ekainaren 15ean hauteskundeak ospatu ziren; emaitzak erregimen demokratikoaren egituraketan garrantzitsuak izango ziren aurreko legalitate bertan behera utzita **hauteskunde konstituziogileak izan zirelako de facto**. Oposizioko alderdiek legaltasunean antolatzeke denbora gutxi izan zuten. Parlamentuko indar koerlazioaren emaitzek politika baztertzaila ezin aurrera eramanez. Oreak elektoralak, PCE eta APren emaitza okerrak eta alderdi moderatuen emaitzek aurreko hilabeteetako jarraikortasunean eta konsensuaren intentsifikazioan eragingo dute⁴⁴. Prozesu konstituziogilean zehar bi baldintza presente egon ziren: EPLaren edukia bermatzea eta koroaren instituzionalizazioa: biak aurreko erregimenaren kontinuismoarekin

⁴² Terry L. Karl and Philippe Schmitter (1991). *Modes of Transition in Latin America, Southern and Eastern Europe*. California: Stanford University Press. 281. orrialdea

⁴³ Philippe Schmitter (1992). *Interest Systems and the Consolidation of Democracies*. Beverly Hills: Sage Publications. 168. Orrialdea.

⁴⁴ Ninou Guinot, Carmen (1995). *Evolución Histórica y Constitucional del Sistema Político Español*. España: McGraw-Hill Interamericana de España. 17. orrialdea

batzen dira, eduki hauen bermea prozesuaren kontrol erreformistaren definitzaileak dira. Konstituzioa osatzeko Komizio mixtoa osatzen da. Alderdi guztiek izan zuten ordezkari talde mixtoak eta Eusko Alderdi Jeltzalea izan ezik. Bien artean osatu egiten da eta bi ganbaren errebisioa eta aldeotasuna pasa ostean Erregeak erreferenduma deitu zuen abenduaren 6an. Behin onartuta proiektua abenduaren 28an argitaratzen da Boletín Ofizialean. Erradikalizazioa eteteko sakonera demokratikoaren uniformizazio prozesua lehenengo momentutik presente egongo da, Suarez estrategia horrekin hasiko da eta Alderdi Sozialistak estrategia bera jarraituko du 1982an Felipe Gonzalezek gobernu osatzean; 1986an uniformizazioa kontsolidatu egiten da Europako Elkarteko Ekonomikoan sartzen denean

5.Taula: Espainiako demokratizazio sakonera gradu ezberdinak

	Trantsizio autoritarioa	Trantsizio Demokratizatzailea	Uniformizazio prozesua
Epealdia	1974tik 1976ko uztailera	1976ko Uztailetik	1976ko apiriletik kontsolidazioa lortu arte
Aktore Nagusia	Arias Navarro	Suarez	Suarez eta Felipe Gonzalez
Demokratizazio Sakonera	Pluralismo mugatua	Demokrazia liberal sinplea	Demokrazia liberal mendebaldar mugatua

Iturria: nik neuk egin

4 KONPARAKETA

Bi Konstituzioen hitzaurrea eta lehenengo artikulua irakurrita jada nahikoa da bien arteko ezberdintasunaz jabetzeko. Portugaleko Konstituzioaren 1. artikulua klaserik gabeko gizarte bateranzko aldaketa helburu duela jasotzen du, ildo berean, 2. Artikuluak Estatu demokratikoak sozialismoranzko trantsizioa eta langile klasearen boterearen gauzatzea azpimarratzen ditu; aberastasun eta produkzio bideen sozializazioa herritar eta langile klasearen onurarako aurreikusiz (9. Artikuluan). Testuak inperialismo eta kolonialismoaren aurkako jarrerak salatzen ditu 7. Artikuluan herriei zapalkuntza hauen aurkako matxinada aitortuz. Espainiako Konstituzioak ez du bere horretan **langile klaseari** buruzko aipamenik egiten. Hitzaurrean argi uzten du Konstituzio barnean bizikidetzaren demokratikoa bermatzea eta gizarte demokratiko aurreratua lortzea direla helburuak. Konstituziaren balio goren bezala ordenamendu juridikoa, justizia eta berdintasuna izendatzen ditu. 1. artikulua herrialdea Zuzenbidezko Estatu Demokratikoa bezala aitortzen du, Natalia Paleo eta Isabel Diz-en analisia jarraituz Estatuaren dimentsio soziala ahula zen baita honek herritarrei eskainitako berme juridikoak.⁴⁵ Ezberdintasun horiek zergatik eman ziren azaltzeko, jarraian gaituzten aldagai askeak sintetizatzen dira:

XX. Mendean zehar antzeko bilakaera izan zuten bi herrialdeek, bi diktadurak Mundu Gerra arteko garaian, totalitarismoaren goren momentuan eta sistema parlamentarioen krisialdi garaian ezarri ziren. Diferentzia garrantzitsua Portugalen Gerra Zibilaren existentzia eza izan zen. Proiektu totalitarioak, besteak beste errepublikaren aurka sortutako koalizioen heterogeneitate ideologikoengatik ez ziren konkretatu. Erregimen oso pertsonifikatuak izan ziren, arrazoi

⁴⁵ Paleo, Natalia eta Diz, Isabel (2014) *Sistema político español*. Madril: Akal. 225. orrialdea

honegatik ulertu daiteke biak Europako diktadurarik zaharrenak izatea. Lidergoaren berrikuntza eta konkretuki oinordekotza da erregimen autoritarioek aurre egin behar dioten erronka nagusienetarikoa eta erregimen oso pertsonifikatuetan arazo larria da benetan (Linz, 1990:13). Bai Portugalen eta bai Espainian erregimenek arazoak izan zituzten oinordekotzarekin, hori izan zen kontinuitatearen porrota azaltzen duen elementuetako bat. Ez Caetano ezta Arias Navarro ez ziren kapaz izan erregimenari bultzada berri bat emateko, paralelismoak aurki ditzakegu etapa hauen artean.

Erregimen autoritarioak izan ziren, biek boterea modu diktatorialean erabili zuten eta biek izan zuten eliza katolikoaren laguntza. "*Deus, Pátria e Família*" eta frankismoaren "*Dios, Patria y Familia*" esaera berdinak **kultura politikoaren definitzaileak** dira; balio kontserbadore eta autoritate hierarkikoaren arteko markoan definituta. Frankismoaren indefinizioak eta aldaketarako ahalmenak modu errazagoan autoritarismoa eta desarrollismo ekonomikoa uztartzeko aukera eman zion. Estado Novoak artikulazio politiko landuago bat jasotzen zuen Estatu liberalaren egituraren forma jarraituz. Portugaleko 1933ko Konstituzioa eta Espainiako zazpi lege organikoaren arteko konparaketa erakundetzearen ezberdintasun adibide argia da

6. Taula: Testuinguru Geopolitiko

	Portugal	Espainia
NATO-ko kidea	Bai, sortzaileetako bat	Ez, Madrilgo paktuak AEB-ekin
Base Iparamerikarrak	Bai, bat Azoresetan	Bai, Lau
Balio geoestrategikoa	Atlantikoko enklabea	Mediterraneorako sarreraren kontrola

Iturria: nik neuk egin.

Bigarren Mundu Gerratik Portugal Espainia baino nazioarteko egoera erosoagoan atera zen⁴⁶, Frankok bere nazioarteko alineamendua ordaindu zuen eta NATO-tik kanpo geratzen da. 60. Hamarkadara arte, kolonietako gerra pizten den arte, Portugalek ospe hobea izango du nazioartean. Formalki edo faktikoki biak ala biak gerraosteko mundu bipolarrean mendebaldeko blokean integratzen dira Espainia frankistak AEB-rekin Madrilgo Paktua sinatzean. Espainian bost base ipamerikar zeuden, AEB-ek mediterraneoko sarreraren kontrola bermatzen ziotenak. NATOk administratzen zuen Azoresetako base ipamerikarrak mendebaldeko blokearentzat Ozeano Atlantikoko enklabe garrantzitsua suposatzen zuen.

7.Taula: Diktaduren testuinguru koiunturalaren konparaketa 70. hamarkadan

	Portugal	Espainia
Kolonien kudeaketa	Angola, Mozambike, Guinea Bissau, Timor, Cabo Berde, Santo Tome.	Mendebaldeko Sahara
Nazioarteko arazoa	1960an NBE-k Kolonien aitortzea	1970 Burgoseko Prozesua

⁴⁶ Nazioartean diktadura zibil moderatu bezala ikusten zen; Pardo Sanz, Rosa (2013). *Salazarismo y franquismo (1945-1955): sobrevivir en Occidente*. España: UNED, Historia Contemporánea. 67. orrialdea

Lidergoaren berrikuntza	1968an Caetanok Salazar ordeztu du	1975ean Frankoren heriotza
Liberalizazio politikoa	1968an aldaketarekin Lidergo batera. "Udaberri Marcelista"	Oso mugatua Arias Navarrok 1974an. "Otsailaren 12ko espiritu erreformista"
Merkatu ekonomiaren irekiera	Gerra koloniala finantziatzeko (oso mugatua) ondoren Caetanok 1968an	1959ko egonkortze planen bitartez

Iturria: Nik neuk egin

Kolonialismoa nazionalismo portugaldarraren ardatzetako bat zen. Inperio gehiago Portugal hobeago batentzat, logika horretan ez zen diktadura eta oposizioaren arteko desadostasunik egon. Besteak beste, 1926ko Estatu kolpea administrazio koloniala hobetzearen justifikazioarekin ematen da. Errepublikak martxan jarritako politika deszentralizatzailea gelditzeko aberriaren batasunaren aurkakoa izateagatik (Sanchez Cervello, 2004: 121). Koloniak portugaleko Estado Novoaren parte zatiezina ziren "Portugal bat eta bakarra, Miñotik Timorrera" garaiko esaerak erakusten duen bezala. Espainiako kasuan, mistika inperiala garrantzitsua izan zen frankismoaren hasieran gehienez, etapa faxistenean baina **kolonialismoa ez zen nazionalismoaren oinarriaren parte**. Era berean, hauengandik jasotako probetxu ekonomikoa askoz murriztuagoa zen.⁴⁷

Gerra koloniala piztean **krisi hirukoitzari** aurre egiten saiatu zen Estado Novoa 70. hamarkada hasieran. Krisi soziala alde batetik, guda kolonialari errefusatzeko eta langileriaren gero eta mobilizazio handiagoak. Politikoa, lidergo aldaketan barne kohesioa lortzetik urrun, (eskuin inobilistak begi txarrez ikusi zituen erreforma) eta gainera erregimena oposizio moderatuaren elkartasuna eskuratu ezinik zebilen. Hirugarrenik, ekonomikoa, 70. Hamarkadako dezelerazio ekonomikoa krisi gogorra bihurtu zen 1973ko petrolioaren krisia zela eta. Erregimenaren aurpegi latzena erakutsi zuen Estado Novoak Gerra kolonialari irtenbiderik aurkitu ezinean. Rango ertaineko ofizialak ziren gerraren ondamendia jasaten zutenak eta horrek ejerzito barneko oposizioaren sorrera eragiten du MFA, kapitainen mugimenduaren erakundea eratzean. Baiezatu dezakegu trantsizio edo iraultzaz hitz egin aurretik Portugaleko liberalizazio disfuntzionala eta kolonietako arazoa klabea izan zirela eliteen egitura moldatzeko. Hori erabakigarria izango da erregimen aldaketa garaian.

Espainian 60. hamarkada bukaeran Euskal Herriko arazoak eta 1970. urtean Burgooseko Prozesuak nazioartean ebidentzia jarriko du erregimena indarkeriaren instituzionalizazioa agerian utziz. Portugaleko krisi hirukoitzarekin konparatuta arazok ez zuten urte berean eta jarraian kointziditu. Lidergo aldaketarik ez dagoenez, bunkerrak ez du legitimitatea bilatzeko maniobra politikorik egin beharrik; armada eta eliteak oso kohesionatuta daude eta Frankoren figuraren leialtasuna mantendu egiten da. Lidergoaren aldaketaren ordua iristen denerako Frankok Juan Carlos erregearen oinordetza prestatzen du beroni armadaren leialtasuna trasladatuz.

⁴⁷ Nazioartean diktadura zibil moderatu bezala ikusten zen; Pardo Sanz, Rosa (2013). *Salazarismo y franquismo (1945-1955): sobrevivir en Occidente*. España: UNED, Historia Contemporánea. 70. orrialdea

7. Taula: Egoera ekonomikoaren arteko konparaketa

Herrialdea	1960		1973-74	
	Portugal	Espainia	Portugal	Espainia
Sector primário ⁴⁸	43,6%	41,7%	27,8%	23,1%
Sector secundário	28,7%	31,8%	35,6%	36,7%
Sector terciário	27,7%	26,5%	36,6%	40,2%
Errenta per capita \$ parekotasunean ⁴⁹	360,5	396,39	1748,16	2742,45

Iturria: nik neuk egina

Taulako datuetan ikusi daitekeen bezala, 60. Hamarkadako estruktura ekonomiko sozialak denominatzaile komuna zuen bi kasuetan: industrializazioaren atzerapena eta nekazaritzaren paper determinatzailea. 60. Hamarkadan jada aldatzen doa gradu ezberdinean bi herrialdeetan. Espainian Opus Deiko teknokratek gobernuko ministeritza ekonomikoaren kontrolarekin desarrollismo ekonomikoa bultzatuko dute 59ko egonkortze planen bitartez. Portugalen aldaketa ekonomikoaren gauzatzeak Salazarren kargua uztearekin kointziditzen du. Sektore ekonomikoen eraldaketaren baitan, migrazio masiboak jasan zituzten herrialdeek. Bai kanpo migrazioak eta baita barne migrazioak. Portugalen barnekaldetik litoralera; Lisboa eta Oportoko zonalde metropolietara; Espainian aldiz, landa gunetatik, Madril, Bartzelona edo Bizkaiko zonalde industrialetara. Honek urbanizazio fenomenoaren azelerazioa eragiten du. Populazioaren kokapen territorial eta banaketa okupazionala oso denbora laburrean guztiz aldatu egiten da. Atal honetan turismoa aipatzea garrantzitsua da, Espainiako kasuan esanguratsua izan zen batez ere. Onura ekonomikoez gain, aktibo demokratizatzaile bat kontsideratu dezakegu nazioarteko aldizkari eta prentsak kultura politikoan sortutako eraginarengatik.

Nahiz eta sektoreen lan indarren ehuneko banaketa antzekoa izan, errenta per capitan oso ezberdintasun nabaria nabaritu daiteke bi herrialdeen artean erregimen aldaketa abiatu zen aurreko urtean. Liberalizazio ekonomikoa abiatu aurretik 60. Hamarkadan bi herrialdeen arteko aldea ez zen aiderazgarria. Portugalen hazkunde ekonomikoak eta merkatuaren liberalizazio prozesu kontrolatuago eta berantiarragoak ez zuen Espainian besteko eraginik izan gizartean. **Modernizazioaren teorien logika aplikatuz**, momentu horretara arte litekeena kontsideratu zen **diktadura frankista** izango zela **lehena erortzen eta ondoren erregimen portugesa inobilistagoa aldaketara erakarriko zuela**.

Hurrengo orrialdeetako konparaketa hiru ataletan banatu dugu, erregimen aldaketa burutu baino lehen, erregimen aldaketa abian dela eta hirugarrenik inflexion une esanguratsuenak konparatuko ditugu.

⁴⁸ Baklanoff, Eric (1980) La transformación económica de España y Portugal (la economía del franquismo y salazarismo). Madrid: Espasa-Calpe, S.A. 93. eta 177. orrialdeak

⁴⁹Munduko Bankua <https://datos.bancomundial.org/indicador/NY.GDP.PCAP.CD?locations=ES-PT> 2019ko Maiatzaren 27an kontsultatua.

A) Erregimen Aldaketa abiatu baino lehen:

Bi herrialdeetan aldaketa sozial kulturala kontsolidatzen hasten da 60. hamarkada bukaeran. Bai Portugalen eta bai Espainian egitura sozial bertikala errepresioak inposatua izan zen urte askotan zehar. 1960ko hamarkadan izandako hazkunde ekonomikoak masa mugimendua suspertzen du estruktura bertikalen artifizialismoa ebidentzian jarriz. Langile klase industrial eta unibertsitateko ikasle populazioei aurre egin behar diete erregimenek. **Langile mugimenduaren aktibazio eta mobilizazioari** esker bertikalismo hori gainditzea lortu zen demokratizazioaren eskaera estimulatuz. Honek erregimen autoritarioaren ezegonkortasuna asko nabarmentzen du.

Europako hegoaldeko diktaduren krisia ulertzeko, erregimen autoritarioaren izaera aldaketa ulertu behar dugu 60tik 70erako hamarkadan. Industrializazioaren prozesuaren influentziapean, Estatu eta gizarte zibilaren arteko bertikalismoaren aldaketa bat ematen da⁵⁰. Industrializazioak sortarazten duen inpaktu ekonomikoak egitura sozialaren dibertsifikazioa dakar eta gizarteak, pixkanaka autonomia politikoa irabazten du Estatuaren aurrean. Industrializazio prozesuak aldaketa adierazgarriak sortarazi zituen klase sozialen arteko harremanetan, horrek aukera politikorako egitura ireki egiten du eta diktaduraren aldeko base soziala pixkanaka desagertzen hasten da. Iberiar penintsulako bi herrialdeetan, barne politikari dagokionez hoberen antolatutako alderdiak alderdi komunistak ziren. Indar hegemonikoak izan ziren eta diktaduren desgastean **paper determinatzaileak** izan zituzten. Bi herrialdeek gizarte mugimenduen hazkunde bat esperimentatu zuten alderdi komunistek zuzenduta, komunisten entrismoak erakunde sindikal ofizialetan aldarrikapen laboralen politizazioa erraztu zuten lan mundua diktaduren aurkako fronte nagusi bilakatz⁵¹.

Portugalen Salazar ordeztu eta lehenengo bi urteetan une itxaropentsua bizi izan zen "Udaberri Marcelistarekin". Pertsonal politikoaren berriztapenean, erregimena eta ordezkari atzerakoen pribilegioak mantentzeko asmoarekin, Caetanok oposizioko ordezkari liberalak sistema politikoan integratu zituen kartel moduko akordioaren eszenatokia sortuz. Caetanoren liberalizazioak gerra kolonialarekin bat egiten du eta armadaren atxekabeak eliteen arteko kohesio falta nabaria azaleratzen du. Hau klabea izango da ala liberaleko ordezkariak diktaduraren aldeko koalizioan bi urtez kolaboratu ostean oposizio leialaren papera baztertu eta Asanblada Nazionala uzteko.

Garrantzitsua da ala liberaleko teknokrata liberalak eta Opus Deiko teknokratak bereiztea. Azken hauek frankismoko erakundeetan integratuta zeuden 60. hamarkadatik, ez ziren Frankismoaren aurkako oposizioaren parte. Aldiz, ala liberaleko diputatuek askatasun liberalak aldarrikatzen zituzten; euren proiektua Estado Novoa pausoz pauso ordezte zen. Liberalizazio disfuntzionalak **eliteen arteko kohesio falta agerian** uzten du eta **erreformatzaileek euren espazioa aldarrikatzen dute**. Erreforma eta neurri sakonagoak proposatzen dituzte botere gehiago aldarriktuz eta hazkunde ekonomikoa lortu izana legitimitate aitzaki bezala erabiliz.

⁵⁰ Holman, Otto (1989). *Clases sociales, crisis del régimen autoritario y transición democrática: los casos de Brasil y España en una perspectiva comparativa*. España: Afers Internacionales. 14. Orrialdea.

⁵¹ Andrade, Blanco Juan A. (2008) *La revolución de los claveles y la Transición: la izquierda ante el cambio político en Portugal y España*. España: Ayeres en discusión.

Estado Novoko eliteek liberalizazioaren kontrola galtzen dute eta disidentzia politikoarengatik Caetanoren figura asko ahuldu egiten da.

Espanian Arias Navaroren trantsizio autoritario epean aurkitu dezakegu irekiera itxurakeri sahiakera. Espainiako kasua trantsakzio bidezko trantsizioa den eanean, liberalizazio politiko prozesua erregimeneko eliteek kontrolatua da, ziurgabetasun testuinguruan indarkeriaren monopolioak erregimenaren esku jarraitzen du **eta koertzioaren mehatxua mantendu** eta egikaritzen jarraitzen da. Arias Navaroren gobernu kontinuitateak eredu berria behar zuen eguneratzeko; kontinuitate, erreformisten eta rupturisten arteko zalantza testuinguruan Krabelinen Iraultzak Arias Navarorri ateak itxi zizkion de fakto bunkerrak proposatutako bide kontinuitate aratza alde batera utziz. Epe laburrera portugaleko trantsizioak izandako eragin argiena hori izan zen; berdin jarraituz gero Caetanoren sen bera jarraituko zuen Ariasek.

B) Erregimen aldaketa abian dela:

Portugalen 1974ko apirilaren 25a eta gero, aurreko erregimenaren ondarea ez da eliteen eta alderdien arteko joko politikoan bihurtzen. Haustura iraultzailearengatik, **kontinuisismoa bertan behera** geratzen da. Aurreko legalitatearen erabateko indargabetzea inposatu zen eta erregimen autoritarioarekin konprometitua egon zirenen administrazioaren garbiketa bat inposatzen da. Horrengatik, armadaren egiturak eta ondoren beraiek sortutako erakundeek determinatuko dute trantsizio ereduak. MFA izango da barne faktore determinatzailea berorrek banatuko duelako errekurtsioen gaineko kontrola. Kasu espainiarren ez bezala eta militarren armadako komandanteen salbuespenarekin, oso arraroak izan ziren kasuak non behin 1974ko erregimena bertan behera utzita, hierarkia politiko berdinetik zetozen pertsonak Portugal demokratikoan bide propioa eraikitzea lortu zutenak⁵². **Lidergotzari dagokionez, Portugalen ez zen Espainian beste argi geratu**, testuinguru koiunturalaren arabera, figura bat edo beste gailenduko da une ezberdinaren arabera baina inoiz ez Suarezen figurak Espainian izango duen besteko garrantziarekin.

Krabelinen Iraultzaren ondorengo egoerak eragiten du erakunde militarra izatea kohesio gradua mantenduko duen erakunde bakarra izatea. Erakundeetatik haratago, okupazio masiboek, grebek eta mobilizazio sozialek markatu zuten aldaketen erritmoa. Gizarte mugimenduek indarrez markatu zuten norabidea, langile eta inkilinoen komisioren kaleko manifestaldi jendetsuek giro iraultzailea mantendu egiten dute Estado Novoaren aldeko jarraitzaileen **kontraerasoa blokeatuz**. Estatuaren ahultasunaren unea aprobetxatu zuten eta aldarrikapen espontaneoek trantsizioaren norabidea gidatu egiten dute lehenengo hilabeteetan

Ez zegoen aurreikusita MFA agente politiko bihurtzea baina Spinolarekin mantendutako pultsoak eragiten du hori gertatzea⁵³. MFA-k Portugaleko **herriarekin sinatzen du prozesu iraultzailea mantentzeko paktoa**⁵⁴ eta legitimitate horri erantzuteko beharrean aldaketa

⁵² Loff, Manuel (2007). *Marcelismo e ruptura democrática no context da transformação social portuguesa dos anos 1960 e 1970*. España: UNED, Historia Contemporanea. 162. orrialdea.

⁵³ Rezola, Maria Inácia (2016). *Los militares en la revolución y en la transición a la democracia en Portugal*. Bartzelona: Publicaciones URV. 162. orrialdea

⁵⁴ Aliança povo-MFA. Centro de documentação 25 de abril. Universidade de Coimbra. <http://www1.ci.uc.pt/cd25a/wikka.php?wakka=poderpol17> 2019ko Maiatzaren 20an kontsultatuta

sakonagoaren alde posizionatzen da. Batez ere kontrairaultzaren Estatu Kolpeak porrot egiten duenean (1975eko martxoan) eta hilabete beranduago alderdiekin lehenengo paktua sinatzean. Ordura arte langile klasea ez zegoen Espainian beste mobilizatuta, errealitate sozial eta esfera politiko instituzioanalaren arteko muga ez zen hain nabaria. Gauza aldatu egiten da bat-bateko eszenatoki iraultzaileak faktore estrukturalen pisua biderkatu egiten duenean. Espainian **Gizarte zibilak eta oposizio rupturistak Arias Navarroren gobernuan hartzen du indar gehien** bunkerreko elitearen koertzioaren kostua gero eta garestiagoa eta desproporzionala bilakatzen denean (1975eko azarotik 1976ko uztailera). Hortik aurrera mobilizazioek ez dute aldaketen intentsitatea markatuko boterearen hutsunearen aukera Suarezzen lidergoak betetzen duelako.

C) Inflexio une esanguratsuenak

Eliteen aldagaiari dagokionez demokratizazio graduaren azken emaitza gehien baldintzatu zuten inflexion puntuak bi izan ziren: Portugalen MFA-k alderdiekin sinatutako paktuak eta Espainian Erreforma Politikorako Legearen Onarpena. Espainian hauteskundeek aurretik erakundetze demokratikoa konfiguratu egiten da EPL onartu eta erakunde franksiten disoluzioa gertatzen denean. Portugalen **eraketa instituzionala** MFA-k ezarri egiten du lehenengo momentutik, ANK-k hasieran eta beranduago alderdi politikoekin lehenengo paktua sinatzean. Bai EPL eta bai MFA-k alderdiekin sinatutako akordioak hauteskunde demokratikoak ospatuko direlaren konpromezua hartuta sinatzen dira. Erakundeekin harremanduta, Gelmanek aitortzen du **legitimitate iturri nagusia hauteskundeak** direla. Lider politikoentzat, hauteskunde (libre eta justu) bezperan herritarren laguntza da errekurtsorik baliagarriena. Egia esan, hauteskunde libre batzuekiko konpromezuak errekurtsoen banaketa ankaz gora jarri dezake, **legitimitate demokratikoak garrantzi gehien hartzen duelako momentu horretatik aurrera.** (Gelman, 2008:160)

Indarkeriaren monopolioaren boterea duenak ez du praktikan indarkeria hori erabiltzeko benetako indarrik. Portugalen legitimitate iraultzaile eta legitimitate demokratikoaren arteko tirabira horretan, hauteskundeek bigarrenaren alde egin zutela esatea soberan dago. Emaitzek lehenengo momentutik alderdi iraultzaileen eta konstituzioaren eduki iraultzaileen aurkakotasuna argi utzi zuten. Hauteskundeek ondorengo eszenatokian nahiz eta MFA errekurtsoen botere nagusitasunarekin mantendu, trantsizio ereduak Winner Takes All eszenatokitik aldentu zuten guztiz. Koertzioaren kostua izugarri putzen da konpromezu demokratikoa hartzen den momentutik aurrera.

Hauteskunde libreek trantsizio prozesua azkartzen dute eta denbora batez indarrean dagoen gobernuari legitimitatea ematen diote oposizio moderatuaren aurrean. Honetaz gain, gobernu boteretik botatzea helburu duten mobilizazioak baretzen ditu eta oposizioko liderrek jarrera arduratsuak hartzera behartzen ditu euren eskariak hauteskundeek ostean lortu ditzaketelako (Linz, 1990: 20). Espainian konpromezu bera hartzeak, herritarren aurrean Suarezzen bidea legitimatu zuen Erreforma Politikorako Legearen erreferenduma ospatzean. **EPLaren erreferendumaren aldeotasuna logika berdinarekin** interpretatu dezakegu, nahiz eta hauteskunde libreak ez izan (erreferenduma) eta nahiz eta oposizioarekin ezer negoziatu ez, ondorio berdina izan zituen oposizioko liderren estrategia moderatu eta moldatuarazi bait zuen. Aurretik jada errekurtsoen banaketan aktore bat gailentzen bazen, estrategia honi esker are gehiago indartuko da bere figura.

Gobernua Estatuaren makinaria administratibo eta politikoaz baliatzen da EPL-aren proiektua aurrera ateratzeko. EPL-ak emandako legitimitate demokratikoari esker Suarezek oinarri elektoralera erabiltzen du aurreko erregimenaren aurrean independentzia aldarrikatu eta bere figura indartzeko; era berean oposizioak duen errekurtsoen balioari indarra kentzen dio proiektu politikoa aurrera eramateko ekimena guztiz blokeatuz. Bere **lidergotza eztabaida ezinetik kontsentsuaren politika eraikitzen hasten da**. Hainbatetan entzun dugun ahulguneen korrelazioak bultzatuta eta militarren erregresioaren mehatxua presente edukita modelo erreformistak aurrera egiten du eta pausoz pauso onartzen dira joko politikorako arau berriak. Gobernuaren partetik alderdi eta hauteskunde legalizazioaren konpromezuak alderdiei etorkizunean botere egituran integratzeko aukera eman zien erreformaren aldeko konpromezua hartzen bazuten. Joko politikotik kanpo geratzeko arriskuan eskaerak moldatzen dituzte alderdi guztiek. 1977ko Hauteskundeek ez zuten Portugalen bezala errekurtsoen banaketa ankaz gora jarri; kontrakoa gertatu zen. EPL-a onartu zen momentutik aurrera eramandako konsensuaren politika indartu egiten dute emaitzek.

Portugalen hauteskundeetan ostean errekurtsoen gorakada bat jasotzen dute demokrazia liberal mendebaldarraren aldeko alderdiek eta estrategia aldaketa burutzen dute. Gobernuaren aurkako oposizioa igarotzen dira eta proiektu politiko propioak diseinatu hasten dira. Herritarren legitimitate demokratikoa jasota MFA-ren mehatxuaren kostua onartzera hausartzen dira badakitelako **nazioartetik duten laguntzak** duen garrantzia. Portugalen MFA-k marraztutako erakunde egitura zentralizatu eta hierarkizatuak potentziek aurrera eramandako estrategia lagunduarazi zuen; egitura hierarkizatuak kanpoko indarren eragina erraztu zuelako alderdietako liderren arteko elkarrekintza erraztuz.

5 ONDORIOAK

Portugaleko haustura Iraultzaileak boterearen konfigurazio oso ezberdina sortarazten du lehenengo momentutik. Dimentsio sinboliko sustantiboan dauden ezberdintasunak hemendik eratorriak dira nagusiki, ikusi dugun bezala haustura prozesu eta eduki kontu bat izan zen. Ondoren, nahiz eta konstituzioen dimentsio sinboliko sustantiboak ezberdinak izan, Gerra Hotzak markatutako eszenatoki geopolitikoak Iberiar penintsula Dimentsio operatiboan emaitza berdinerara bideratu zuen. Hau da, bi prozesuen helmuga berdina izan zen kanpo eraginak eraginda. Hala ere kultura politikoaren ezberdintasunak gizartean sustraituak geratu ziren eta noizbehinka trantsizio prozesuen eta demokratizazio graduen ezberdintasunak oihartzuna izan dute, errautes hori XXI. mendera ekarri duten bezalaxe⁵⁵.

Modernizazioen teoria jarraituz gero eta garapen sozioekonomiko altuagoa, demokratizazio sakonagoa lortuko denaren baldintza ez da betetzen. Sozioekonomikoki Espainia Portugal baino garatuagoa zegoen eta hala ere demokratizazio graduaren intentsitatea Portugalen sakonagoa izan zen. Honek teoriaren logika hautsi egiten du pitzadura bat agerian

⁵⁵ EFE Lisboa: https://www.eldiario.es/sociedad/Tribunal-Constitucional-portugues-vientes-alquiler_0_764324790.html Maiatzaren 20an kontsultatua

utziz. Azken finean hazkunde sozioekonomikoak eliteen arteko barne kohesioa asko indartu zuen aldaketaren eszenatokia egoera egonkorrago batera bideratuz.

Erregimen aldaketa unean, hausturaren estrategia posible da soilik ohiz kanpoko egoera iraultzaile batean edo potentzialki iraultzaile batean. Hausturaren aldeko oposizioko alderdiek, armadaren sektore inportante baten sostengua lortu ezean edota erregimenaren aurka bortizkeriaz herria mobilizatzeko gai ez badira ezinezkoa da boterean daudenek libreki euren espazioari abdikatu eta hauei eskura ematea. Era berean, erregimenetik gidatutako trantsizioa oposizioaren partaidetzarik gabe posible da soilik baldintza oso jakin batzuetan. (Linz, 1990: 19) Horregatik, trantsizio garaian **“winner takes all” eszenatoki batera ailegatzea erreztuko luketen bi estrategia hauek ez daude benetan erabilgarri ez boterean daudenentzat ezta oposizioan dauden taldeentzat**. Portugalen, hausturaren estrategia posible izan zen **armada bera izan zelako erregimen aldaketa prozesuaren bultzatzaile nagusia**. Erregimenak indarkeriaren monopolioa galtzen du eta ordura arte bere zutabe garrantzitsuena izan zenaren erakundearen aginte katea apurtu egiten da.

Portugaleko iraultzaren txinparta piztu zuen gertakaria hamahiru urte indarrean zirauen gerra kolonialak ekarritako arazoak izan ziren. Momentu horretan, Prozesu Iraultzaileak aurrera egitean **MFA-ren hasierako testu politikoa Estatuaren testu juridiko bilakatzen da**. MFA-k langile komisiorekin eta oro har herriarekin hartzen du demokratizazioa lortzeko konpromesua eta alderdiak aktore subordinatu bilakatzen ditu errekurtsioen gehiengoarekin lehenengo paktua inposatzen duenean. **Nazioarteko mendebaldeko potentziak une honetan aktibatu egiten dira demokrazia parlamentario pluralistaren aldeko taldeei kanpo laguntza ekonomiko finantzieroa eskainiz**. Hauteskunde logikak alderdi politikoetan jartzen du atentzio fokoa eta hauteskunde osteko eszenatokiak demokrazia liberal mendebaldarraren aldeko alderdiak indartu egiten ditu. Antikomunismoa estrategia politiko-diskurtsiboaren klabeetako bat bilakatzen da barne politikan eta kanpo politikari dagokionez⁵⁶, MFAren lidergoa asko ahuldu egiten da barne kohesio faltarengatik,

Bi arrazoik eragin zuten mendebaldeko herrialdeek Espainia eta Portugaleko aldaketa politikoa nazioarteko statu quoaren aurkako mehatxu ideologiko bezala ikustea: Batetik, Salazar eta Frankoren diktadura antikomunista luzeen aldaketa ematen den momentuan, demokrazia liberala ez zegoela guztiz kontsolidatuta eta bestetik sozialismoaren printzipio ideologikoen oraindik ere ospe eta prestigioa izaten jarraitzen zutela⁵⁷. Mendebaldeko potentzien helburua Portugaleko erradikalizazioaren irtenbide kontrolatu eta baketsua bideratzea izan zen eta era berean Espainiako kutsadura iraultzailearen arriskua gelditzea. Egonkortasuna lortzeko estrategia horretan Europa Iberiar Penintsularantz hurbiltzen da eta oposizio moderatua kultibatuz egiten du alderdi politiko eta hauen fundazioen bitartez.

Krabelinen Iraultzak hirugarren Demokratizazio Olatua hasi egiten du, ordura arte ez zegoen trantsizio modelo motarik eredu bezala erabiltzeko. Horregatik, Portugaleko erregimen

⁵⁶ Palacios, Cerezales, Diego (2002). *Reacción popular violenta y Estado revolucionario. El «verano caliente» portugués de 1975*. España: Portugal Contemporáneo. 220. Orrialdea

⁵⁷ Martín García; Oscar J. (2012) *Emisarios de la Moderación. La Diplomacia pública británica ante el fin de las dictaduras ibéricas*. España: Hispania. 792. eta 793. orrialdeak

aldaketak bereizgarri propioak ditu, garrantzitsuena erregimen aldaketa prozesua hasteko **elite politiko boteretsuen falta** izan zen. Espainiako trantsizioa mediterraneoko trantsizioen artean hirugarrena eta azkena izanik aurreko bi prozesuez influentziatuta egon zen. **Denboraren faktorea aipatzea ezinbestekoa da**, Portugalen urte bete lehenago gertatutakoak esportatu nahi zenaren eta ez zenaren ikaskuntza suposatu zuen eliteentzat. Influentzia hau Erregea eta Suarezen lidergoaren estrategian somatu daiteke; Portugaleko aurrekaria kontuan hartu gabe ezin daiteke ulertu UMD-k jasotako errepresioaren zergatia ezta ejerzitoa Saharatik modu azkar horretan atera izana.

Aldaketaren intentsitatea eta agenda politikoa erregimenak markatu egiten du eta oposizioko liderrak joko politikoan sartzeko baldintzak ezartzen dituzte. Frankismoaren azken urteetan **eliteek jasandako konbergentzia prozesua klabea izango da**. Aldaketa ekonomio, sozial eta kulturalak paper determinatzailea izango dute faktore horiek erregimeneko eta oposizioko eliteen arteko konbergentzia ahalbidetu zutelako oposizio eta erregimeneko eliteak negoziatzera esertzera animatuz. Eliteen arteko hurbilketak eliteen arteko negoziaketak erraztu zituen. Suarezek oposizioko alderdiekin erreforma paktatua abiatzen duenean prozesu demokratizaatzailean langile klasearen papera murriztu egiten da. Legalizazioaren trukean sinatutako paktu soziala kaleko manifestaldien desmobilizazioa suposatu zuen. Hori ulertzeko ezinbestekoa da aldaketa politikoaren aldeko agente politikoek, sindikatuek alderdiekin zuten lotura zurruna ezagutzea.

Portugalen Gerra Zibilaren existentzia eza eta Espainian Gerra Kolonialaren existentzia eza lege ondareak utziko dizkigun ezberdintasun garrantzitsuenak izango dira. Portugalen eliteen arteko kohesioa asko ahuldu egiten da lidergo aldaketarekin eta liberalizazio disfuntzionalak eraginda. Kolonietako esfortzu militar desproporzionalak armada eta eliteen arteko batasuna hautsi egingo du. Aldiz, Espainiako trantsizioan zehar erregimeneko eliteak gogor kohesionatuta mantendu egiten dira. Gainera, elite hauen eta armadako sektoreen arteko batasuna ez da zalantzan jartzen. Prozesu guztian zehar **ziurgabetasun gradua klabea** izan zen armadak izandako tratua aztertzerako momentuan. Ziurgabetasun egoeran, testuinguru historikoa kontuan hartuta **militarrak frankismoaren legalitatea defendatzeko prest** zeudela ulertzen zen. Horregatik interbentzioaren eta erregresioaren kezka mantendu egingo da lehenengo momentutik bukaerara moderazioa eta elkar ulertzearen mehatxua mantenduz.

6 BIBLIOGRAFIA

5.1 Liburuak:

- Baklanoff, Eric (1980) *La transformación económica de España y Portugal (la economía del franquismo y salazarismo)*. Madrid: Espasa-Calpe S.A.

-Gabriel, Almond eta Sidnei, Verba (1963). *The Civic Culture*. New Jersey: Princeton University Press.

-Higley, John eta Gunther, Richard (1992). *Elites and democratic consolidation in Latin America and Southern Europe*. Cambridge University Press.

-Huntington, Samuel (1991). *The third Wave: democratization in the late twentieth century*. Oklahoma: University of Oklahoma Press.

-Medeiros Ferreira, José (2001). *Portugal en transición*. España: Fondo de Cultura Económica.

-Lois, Marta eta Alonso, Alba (2014). *“Ciencia política con perspectiva de género”*. Madrid: Akal.

-O'Donnell, Guillermo & Schmitter, Philippe eta Whitehead, Laurence (1986). *Transitions from Authoritarian Rule: Comparative perspectives*. Baltimore: Johns Hopkins University

Tilly, Charles (1978). *From Mobilization to Revolution*. California: McGrawHill

-Ugarte Telleria, Javier (1998). *La transición en el País Vasco y España: Historia y Memoria*. Gasteiz: EHUko Argitalpen zerbitzua.

5.2 Artikulu Akademikoak:

-Agüero Piwonka, Felipe eta Torcal Lorient, Mariano (1993). *Elites, factores estructurales y democratización (una discusión de aportes recientes en la literatura)*. Revista de Estudios Políticos (Nueva Epoca) Apirila-Uztaila

-Alcántara, Sáez, Manuel (1992). *Las transiciones a la democracia en España, América Latina y Europa Oriental. Elementos de aproximación a un estudio comparativo*. España: Revista del Centro de Estudios Constitucionales

-Andrade, Blanco Juan A. (2008) *La revolución de los claveles y la Transición: la izquierda ante el cambio político en Portugal y España*. España: Ayeres en discusión.

-Colomer, Josep M. (1994). *Teorías de la Transición*. Madrid: [Revista de estudios políticos](#).

-Di Palma, Giuseppe (1980). *Founding Coalitions in Southern Europe: Legitimacy and Hegemony*. Erresuma Batua: Cambridge University Press.

-Duverger, Maurice (1984). *Instituciones Políticas y Derecho Constitucional*. Barcelona: Ariel

-Fishman, Robert (1990). *Rethinking State and Regime: Southern Europe's Transition to Democracy in World Politics*. Erresuma Batua: Cambridge University Press.

-Fonseca, Ana Mónica (2014). *Os partidos socialistas e as transições democráticas europeias: a transição portuguesa como lição para a revolução europeia de 1989*. Portugal: Relações internacionais.

- García, Jurado Roberto (2003). *La teoría democrática de Huntington*. España: Política y Cultura
- Gel'man, Vladimir (2010). Out of the Frying Pan, into the Fire Post-Soviet Regime Changes in Comparative Perspective. *International Political Science Review*.
- Gómez Fernández, Ana Belen (2011). *La llegada de la democracia al mediterráneo: las transiciones de Portugal, Grecia y España*. Universidad de Jaén: Historia Actual Online.
- Gomez Fortes; Braulio (2002). *De la revolución hacia la democracia representativa. El 2º pacto MFA-Partidos Políticos*. UNED: Historia y política.
- Gunther, Richard (1992). *Elites and Democratic Consolidation in Latin America and Southern Europe*. Cambridge University Press.
- Holman, Otto (1989). *Clases sociales, crisis del régimen autoritario y transición democrática: los casos de Brasil y España en una perspectiva comparativa*. España: Afers Internacionals.
- Huntington, Samuel (1968). *Political order in changing societies*. New Haven: Yale University Press.
- Jiménez, J.C. 2009. España y Portugal en transición: los caminos a la democracia en la Península Ibérica. Madril: Silex
- Juliá, Santos (1996). *Condiciones Sociales de la Transición a la Democracia en España*. Gasteiz: EHU Argitalpen zerbitzua.
- Karl, Terry Lynn (1990) Dilemmas of Democratization in Latin America. New York: Comparative Politics.
- Linz, Juan Jose (1990). "Transiciones a la democracia". España: Reis, Revista española de investigaciones sociológicas
- Lipset, Seymour (1959). "Some social requisites of democracy: economic development and political Legitimacy". California: The American Political Science Review.
- Lemus, López; Encarnación (2011). *Con la vista en Portugal y mirando a España: EE.UU y el cambio político peninsular*. España: Hispania.
- Lemus López, Encarnación (2012). *La transición Iberica. Ruptura frente a reforma en las democratizaciones de Portugal y España*. España: Hispania.
- Loff, Manuel (2007). *Marcelismo e ruptura democrática no context da transformação social portuguesa dos anos 1960 e 1970*. España: UNED, Historia Contemporanea
- Markoff, John (1996). "Olas de democracia". Madril: Tecnos.

-Martín García, Oscar (2012), *Emisarios de la Moderación. La Diplomacia pública británica ante el fin de las dictaduras ibéricas*. España: Hispania.

-Mellón, Joan A. (2012) *El Franquismo (1936-75) una dictadura militar fascistizada*. España: Huygens editorial.

-Merritt, Richard (1970). *Systematic approaches to Comparative Politics*. Chicago: RandMcNally.

-Monedero, Juan Carlos (2002). *La transición posfranquista a la Monarquía Parlamentaria*. Madrid: McGraw-Hill

-Ninou Guinot, Carmen (1995). *Evolución Histórica y Constitucional del Sistema Político Español*. España: McGraw-Hill Interamericana de España.

-Palacios, Cerezales, Diego (2002). *Reacción popular violenta y Estado revolucionario. El «verano caliente» portugués de 1975*. España: Portugal Contemporáneo.

-Pardo, Sanz, Rosa (2013) *Salazarismo y franquismo (1945-1955): sobrevivir en Occidente*. España: UNED, Historia Contemporánea.

-Powell, Charles T. (1994). *La dimensión exterior de la Transición Española*. España: Revista del Centro de Estudios Constitucionales.

-Przeworski, Adam (1991). *Democracy and the market: Political and economic reforms in Eastern Europe and Latin America*. New York: Cambridge University Press.

-Rustow, Dankwart (1970). *Transitions to democracy: toward a dynamic model*. New York: Comparative Politics

-Rezola, Maria Inácia (2016). *Los militares en la revolución y en la transición a la democracia en Portugal*. Barcelona: Publicaciones URV

-Sánchez Cervelló, Josep. (1995) *La revolución portuguesa y su influencia en transición Española*. Madrid: Nerea.

-Sanchez Cervello, Josep (2003) "Características del régimen salazarista". España: Historia Contemporánea.

-Schmitter, Philippe C. (1986). *An Introduction to Southern European Transitions from Authoritarian Rule Italy, Greece, Portugal, Spain and Turkey*. Baltimore: Johns Hopkins University Press.

-Share, Donald & Mainwaring, Scott: (1986) *“Transiciones via transacción: la democratización en Brasil y en España”* España: Revista de Estudios Políticos.

-Sousa Santos, Belen (1984) *A crise e a reconstrução do Estado em Portugal (1974-1984)* Portugal: Revista Critica de Ciencias Sociais.

-Stepan, Alfred (1986). *Paths toward redemocratization: Theoretical and Comparative Considerations*. Baltimore: Johns Hopkins University Press.

-Terry L. Karl and Philippe Schmitter (1991). *Modes of Transition in Latin America, Southern and Eastern Europe*. California: Stanford University Press.

-Tusell, Javier (1997). *La transición española. La recuperación de las libertades*. Madrid: Historia16, Temas de Hoy.

-Whitehead, Lawrence (1991). *Democracy by convergence and Southern Europe: a Comparative Politics Perspective*. Erresuma Batua: Leicester Unicersity Press.